



Udal Ikastola Partzuergoa
haur eskola berria





txinpart⁵¹

www.hautzaroikastola.net

L.G.: SS-129/2001



Aurkibidea

Hautzaro informatzen.....	3
Hatzak bete lan	18
Euskararen txokoa	21
Hatzak bete lan	26
Gu ere kazetari	36
Nahaste borraste.....	42

ARGITARATZAILEA

Hautzaro ikastola

Elorrondo, z/g

20159 Oiartzun

© 943 49 16 59

oiartzun@ikastola.net

DISEINUA, MAKETAZIOA ETA INPRIMAKETA
antza Komunikazio Grafikoa

2011-2012 ikasturtea

Kaixo, irakurle:

Beste urte batez hementxe gaude ikasturte berri honen lehen alea den Txinparten lehen orrialdean.

Hasia dugun ikasturte honetako egitasmoak martxan jarriak izanik, ohiko moduan Txinpart honetara adierazgarriak diren batzuk ekarri ditugu.

Azken urte hauetan guri ere egoera ekonomikoa dezente okertu zaigu, baina ezin dugu esan, ikastola sendotzeko ahaleginetan erabakiak ditugun proiektuak gogora ekarri, krisian gaudenik:

- Ikastolarekin dugun konpromisoan langile taldea eta guraso taldea, guraso ordezkariak gidari, egiten ari garen lana nahiko lukete batzuek bererako.
- Ikastolen arteko elkar laguntzaren bidez ikastolon proiektua eta gure arteko zubiak indartzen ari gara: horren lekuko SEASKAren alde ikasturte honetan erabaki ditugun ekimenak.
- Lan pedagogikoan abian jarri ditugun berrikuntza pedagogikoak.
- Ikastola proiektua aukeratzen duten herritarrak gorantz doaz.
- 0-3 eraikuntza berria.
- ...

Zerrenda luzatu orde, ale honetan aurkituko duzue gure lehen hiruhileko lanaren testigantza. Honekin guztiarekin gure proiektua indartzen dugu eta etorkizunari begira baikor gaude.

Bide batez, ongi etorri oraindik ikastolakoak ez zareten gurasoak; aurrerantzean gure proiektuko partaide izan zaitezten gonbita egiten dizuegu.

Eta gauden garaia kontuan hartuta gurekin bat etorriko zarete Gabonen xarmaren zati handi bat abestean datzala, auzoan, afalostean...

Bada ez galdu beste aukera hau:

GABON EGUNEAN, BASERRITARREZ JANTZITA, ETORRI GUREKIN.
Eguerdiko 12etan PLAZAN IZANGO GARA!

HEMEN HELDU GERADE NAHI BADUZU JAKIN
TXINPART ALDIZKARIAN HAINBAT BERRIREKIN...
HORRA, HORRA...

Zorionak eta Urteberri on!

Udal Ikastola Partzuergoa

Haur eskola berria



ESTREINATU DUGU HAUR ESKOLA BERRIA!

12 urte igaro dira Udal Ikastola Partzuergoaren sorreratik, baina azkenean iritsi da. Eta nolako haur eskola gainera! Entzun besterik ez dago egunero bertarutzen diren guraso eta aitona-amonei: “Haur eskola oso argia da, alaia, dotorea, haurrei egokitua, praktikoa...”.

Arkitektoak, udal ordezkariak eta haur eskolako irakasleek Iruñako eta beste zenbait herritako haur eskolak aurrez ikusiak zituzten, ideiak hartu edo baztertzeko, eta gure ttikien beharrak kontuan hartuta, elkarlanean egindako proiektua dela bistan da.

HISTORIA LABURRA

1990eko hamarkadan udal eskola publiko bakarra eratzeko saiakerak egin ziren Oiartzungo herrian. 1994-95 urteetan Siadekok (sozio-ekonomia ikerketa elkarteak) horren aurre-diseinua egin zuen, baina ezin izan zen aurrera eraman.

Herriko hiru haur-eskolak, Iturburu udal haur-eskola, Ttipi-Ttapa eta Koikile haur-eskola pribatuak, Haurtzaro Ikastolak eta udalak aukerak lantzen jarraitu zuten eta, horren ondorioz, 1999. urtean Oiartzungo Udal Ikastola Partzuergoa sortu zuten. 0-3 zikloa zatitu gabe mantendu zen, 3-18 urte bitarteko proiektuan txertatua.

Euskal Herrian esperientzia bakarrenetako bat da, herriko haur-eskola proiektuetatik abiatuta, udalaren eta ikastolaren babesean sortutakoa. Legeak aginduta bezala, 0-3 ziklo osoko heziketaz arduratzen da eta hezkuntza ikuskariak onartua da.



Hasiera batean antolaketa pedagogikoari lehentasuna eman zitzaion; hiru haur-eskola proiektuak batu ziren eta heziketa curriculum bakarra osatu zen. Baina eraikin bakarraren beharra hasieratik nabarmendu zen, eta defizit hori urte hauetan nabaritu izan da. Eraikinik ez izateak urtero kokapen aldaketak eragin ditu. Hasieran 0-2 urteetako haurrak Iturburu eta Koi-kile haur-eskoletan kokatu ziren eta 2-3koak Haurtzaro Txikin, baina gela horiekin ez zen nahikoa.

Haur-eskolan matrikulatutako haur kopurua handituz joan zen eta espazio berriak egokitu behar izan ziren: Haurtzaro Ikastolan kokatu ziren bi urteko gelak, 2004/05 ikasturtean Harri Gainen (duela urte batzuetako anbulatorioan) sehaska eta ertainen gelak, eta azkenik 2006/07 ikasturtean zaharren egoitzako behe solairuko geletan, sehaskak eta ertainak.

Eraikin bakarra premiazkoa izan arren, honen proiektua aurrera eramateko garaian zailtasunak izan dira. Alde batetik, Arau Ordezkatzaileak aldatzeko beharra zegoelako, eta bestetik udal ordezkariek gai honen inguruan zeukaten ikuspegiarengatik. Baina azkenean iritsi da!



Urriaren 1ean inaugurazio ekitaldia izan zen, eta bertan Ager Iñarra arkitektoak haur eskolaren diseinuaren ideia azaldu zuen:

“Haur eskolak herri bat irudikatuko luke: Sarrerako espazio zabala herriko plaza litzateke, herritarren bilgunea, eta eraikineko bi hegalek herriko kaleak. Gero, kale bakoitzean etxeak leudeke (gelak), non giro goxoan etxeko beharrak aseko liratekeen: gertukoekin harremana, elkarriketa, otordu garaia, garbiketa, loa, jolasa ... Eta hau guztia ingurunera irekita kristal eta leiho handiak direla medio: ingurua eraikinaren jarraipena da eta haur eskola inguruan integratuta dago”.

Haur eskolaren lehendabiziko fasea, aurreikusi bezala, abuztuaren 31rako bukatu zen.

Hau lortzeko, Lanen Batzordeko (ikastolako borondatezko jendeak) Jose Comas ikastola elkarteko arkitektoak eta Aitor Arizmendi udaleko aparejadoreak egin dako lanen jarraipena garrantzitsua izan da.

Bigarren fasea egiten denean haur guztiak bertan egongo dira. Ikasturte honetan guztira 21 talde daude: 0-3ko 11 talde haur eskola berrian, eta Haurtzaro Tiki, Karrika eta Harri Gaineko zentroetan jarraitzen dute sehaska eta ertainen gainontzeko 10 taldeak.

Eskerrak eman nahi dizkiegu hemendik abuztuaren bukaeran traslado lanetan aritu ziren guraso eta irakasleei!



HAUR ESKOLARI BURUZKO GURASOEN IRITZIAK:



Aingeru Palomo, Andoni Treku eta Igor Larraizar guraso ordezkariak honela diote:

“Eraikuntza modernoa iruditzen zait eta era berean segurua eta praktikoa, haurren beharrak kontuan hartuta egindakoa; ateak babestuta daude, geletatik kalerako irteera zuzena, lurreko hormigoia garbitzeko erraza...”.

“Alaia, argia, naturarekiko hurbiltasuna sumatzen da, barruko berdegunea, baratza, jolaslekuko txabolatxoak, honek ematen duen jokoarekin...”.

“Sukaldea sarreran, denen bistan egotea, eta batez ere haurren altuerara egotea izugarri ideia ona iruditzen zait, sukaldariekin ere harremanak sortzen dira, janaria prestatzen ikusten da...”.

“Aparkalekua oso ongi dago, haur txikiekin bertaraino autoz etorri ahal izatea asko eskertzen da”.

“Irakasleak ere oso guapak eta atseginak dira...”.



Itxaro Gartzia eta Begoña Iriarte gurasoek ere esatekorik badute:

“Behingoz lortu da eraikuntza berria, kostata baina!,

Guk 5 urtez Arrieta Aldeako lan guztiak pairatu genituen eta han bizitutako egoerak ez ziren proposenak izan... lanean egon ziren irakasleen meritua ere aipagarria da, eta, hori bai, zaharren egoitzako aitona-amonen falta bai sumatzen dugula, harreman politak sortu baitziren haurren eta aitona-amonen artean”.

“Haur eskola honen ingurua paregabea da, leku zoragarrian dago, parke ederra dauka, baratza... gelak ere haurrentzat ederki pentsatuta daude, berentzat milimetrora prestatuta... arkitektoaren lana aipagarria da, baina argi ikusten da irakasleek ere proiektu honetan parte hartu duzuela”.

“Sarrerako espazioa oso egokia eta praktikoa iruditzen zait, erabilera anitzekoa, eguraldi txarretarako, saio berezietarako...”.

“Psikomotrizitate gela ere ederra da...”.

“Ikastolatik hain gertu egotea, eta aparkaleku hau izatea luxua iruditzen zaigu...”.

Mari Jose Arozena





Herri kirol Topaketak

Urtero bezala, aurten ere herri kirolen topaketa egin dugu DBH 3ko ikasleok. Aurtengoa Lezoko Saldize plazan egin genuen urriaren 26ko goiz eguzkitsu eta freskoan.

Lehen orduko klaseak amaituta, autobusean abiatu ginen Lezorantz. Bederatzi eta erdietarako bertan geunden. Han genituen zain XIBako antolatzaileak eta baita Pasaia Lezo Lizeoko ikasle batzuk ere. Gu harmailetan eseri ondoren iritsi ziren gainontzeko parte hartzaileak, Telleri eta Lezo Institutukoak, alegia. Antolaketa erraza izan zen, aurrez landua baikeuen bakoitzak egin beharrekoa. Honela, sei jarduerak egiteari ekin genion: sokatira, hankapoteak, galotxa, txikortak, zaku saltoa eta egur pila.

Sei jarduera hauek hirunaka egiten ziren txandetan. Talde lana, koordinazioa, abilezia, abiadura, estrategia... bezalako arloak landu genituen, dena barre algaraz dezentaren artean.

Topaketaren helburuen artean, lehiakortasun sanoa, harremanak sendotzea, ondo pasatzea, euskara bultzatzea eta gure kulturaren parte diren herri kirolak landuz gozatzea zeudela uste dugu, eta nola pasa genuen ikusita, helburuak bete ginituela uste dugu.

Emaitzetan denetik izan zen, lehen postuak, tiraldi irabazi eta galduak, azken postuak..., baina, lehen esan bezala, ez ginenez lehiatzera soilik joan, emaitza guztiekin ondo pasatzea eta zer edo zer ikastea lortu genuen.

Topaketako azken proba gisa, ikastetxeetako talde bakoitzak bertso bana osatu beharra zuen goizean zehar. Hona hemen Haurtzaroko taldeek eginiko eta bertan abestutako bertsoetako bat:

**HONA ETORRI GARA
ONDO PASATZERA
EUSKAL GIRO BIKAINEZ
GU DENOK BATERA
ETA AHAL BALDIN BADA
TXAPELA LORTZERA
EDO BEHINTZAT BESTEEI
GAUZAK ZAIL JARTZERA
TXAPELDUN IZAN GABE
IRABAZLE GERA.**



Eguerdiko ordu bata jotzean iritsi ginen ikastolara, goiz polit bat pasa izanaren alaitasunez eta jarduerak fisikoa egin izanaren neke punttuaz.



eskolaz kanpoko ekintzak 2011-2012



- Eskolaz kanpoko ekintzen koordinatzailea: Alaitz Bergaretxe.
- Eskolaz kanpoko ekintzen taldea, gurasoak, koordinatzailea eta zuzendaritza.
- Bi motatako ekintzak: kultur jarduerak eta kirol jarduerak.

Kultur jardueretan eta kirol jardueretan, banakakoak eta taldekakoak ditugu:

KULTUR JARDUERAK

- Jolas txokoa HH 2tik (4 urte) LH 2. mailarara. Eguerdietan.
- Eskulanak, marrazketa LH 1etik LH 6ra. Eguerdietan
- Dantza garaikidea LH 1etik DBH 4. mailara. Eguerdi eta arratsalde.
- Euskal dantzak LH 1. mailatik aurrera. Eguerdi eta arratsalde.
- Malabareak LH 1. mailatik LH 6. mailara. Arratsalde.
- Dantza txapelketak bakarkakoak neska eta mutilen kategoriak berezita. Arratsalde.
- Bertso-eskola LH 6. mailatik DBH 4. mailara.
- Ikastolan egiten diren beste ekintzak: trikitixa eta panderoa.

KIROL JARDUERAK

- Atletismoa LH 1. mailatik DBH 4. mailara. Arratsalde.
- Kenpo HH 3 (5 urtetik) DBH 4. mailara. Arratsalde.
- Xakea LH 1etik DBH 4. mailara. Eguerdietan.
- Eskola kirola: arratsalde. Benjaminak LH 3 eta LH 4ko neska-mutilak. Kimuak LH 5 eta LH 6ko neska-mutilak.

Gutxi gorabehera, eskolaz kanpoko ekintzetan 370 ikasle inguru mugitzen dira. 30 monitorea ibiltzen dira ikasturte osoan haur hauekin lanean:

Monitoreak

Jolas txokoan 1
Eskulanetan 2
Dantza garaikidean 1
Euskal dantzetan 8
Dantza txapelketan 2

Malabareetan 1
Bertso eskolan 3
Atletismoan 4
Kenpon 1
Xakean 1
Eskola kirolean 6

Eskolaz kanpoko ekintzak ekainaren erdialdea arte irauten dute gutxi gorabehera eta ikasturtean zehar zenbait ekintzatan asteburutan saioak egiten badira ere —esate baterako, euskal dantzak, dantza txapelketak eta eskola kirolean besteak beste—, ikastolaren egunean, ekainean, goizeko festan tarte bat hartzen da eskolaz kanpoko ekintzetako erakustaldia egiteko.

Ibilaldiak eta ekintzak

HAUR HEZKUNTZA 1-2-3			
MAILA	NOIZ	NORA / NON	HELBURUA
HH1	AZAROAK 14	BASORA	UDAZKENAZ GOZATZERA
HH2	IRAILAK 23	URKABERA	GAZTAINAK BILDU
HH2	URRIAK 18	EGILUZE SAGARDOTEGIRA	SAGARDOA NOLA EGITEN DEN IKUSI
HH2	AZAROAK 11	ZINEMARA	FILMA BAT IKUSI
HH2	AZAROAK 25	HAIZEAREN ORRAZIA	TXILLIDAREN LANA IKUSI
HH3	IRAILAK 15	GURUTZERA	GAZTAINAK BILDU
HH3	URRIAK 14	HONDARRABIRA	GARRAIO MOTAK IKUSI
HH3	AZAROAK 2	BASORA	HOSTOAK BILDU
HH3	AZAROAK 23	KARRIKAKO BASERRI BATERA	ARTZAIN BATEN LANA EZAGUTU
HH3	AZAROAK 25	ZINEMARA	FILMA BAT IKUSI
HH3	URRIA-AZAROAN	LIBURUTEGIRA	IPUINAK IKUSI

Lehen Hezkuntza 1			
MAILA	NOIZ	NORA / NON	HELBURUA
LH 1. MAILA	IRAILAK 20	ZINEMALDIRA	ZINEA EUSKARAZ GOZATU
LH 1. MAILA	IRAILAK 28	MUNUANDIRA	MAILA KOHESIOA
LH 1. MAILA	AZAROAK 15	LUBERRI	DINOSAUROEN GAIA LANDU

Lehen Hezkuntza 2			
MAILA	NOIZ	NORA / NON	HELBURUA
LH 2. maila	Irailak 20	Zinemaldia	Zinemaldiko pelikula ikusteaz gain, mailakideak elkarrekin Donostian eguna pasatzea.
LH 2. maila	Urriak 10	Haur Eskolara bisita	“Zein txikia jaio nintzen” unitatea lantzen ari ginen eta bertara hurbildu ginen txikiak nola ibiltzen diren ikustera. Bide batez, eraikuntza berria bisitatu genuen.
LH 2. maila	Urriak 28 Azaroak 21-25	Udal liburutegia	Irakurketa suspertzeko saioen harira
LH 2. maila	Azaroak 10	Iturriotz, Altzibar	Herriko eraikuntzak ikustera joan ginen Txanelaren 2. gaia dela eta.
LH 2. maila	Azaroak 11	Hondarribia	Txanelaren 2. gaian, Erdi Aroa, Hondarribiko hiri harresituaren aztarnak ikustera joan ginen.
LH 2. maila	Azaroak 18	Jangela gaina	LH 1. mailakoei Erdi Aroko dantza emanaldia eskaini genien.
LH 2. maila	Azaroak 18	Mailaren erakusketa	ERDI AROKO erakusketa antolatu genuen mailan. Gurasoak gonbidatu genituen.
LH 2. maila	Abenduak 2	Frontoia	Euskararen eguna
LH 2. maila	Abenduak 7	Itsasgela	Txanelako 3 gaia.
LH 2. maila	Abenduak 21	Frontoia, Gela Nagusia	San Tomas eta Olentzeroren etorrera.



Lehen Hezkuntza 2. zikloa

MAILA	NOIZ	NORA / NON	HELBURUA
LH3 eta LH4	Irailak 20	Donostiako Zinemaldira eta Kristina Enera	Zinemaldian parte hartzea eta zikloko harremanak sendotzea
LH3	Urriak 14	Altzibar, Ergoien eta Gurutzera	Oiartzungo auzoak ezagutzea
LH4	Urriak 14	Pasaia, Lezo, Errenteria eta Oiartzundik Irteera	Oiartzualdea ezagutzea
LH3	Azaroak 14	Zinema Euskaraz	Ikasleak euskarazko zinemaren ikusle izaten ohitzea
LH3	Urriak 27-28	Udal Liburutegira	Irakurzaletasuna bultzatzea

Lehen Hezkuntza 3. zikloa

MAILA	NOIZ	NORA / NON	HELBURUA
LH 5. maila	Irailak 23	Altzibar-Ergoien	Heritik barrena, elkar ezagutzea
LH 5. maila	Urriak 5	Zientzia museoa (Donostia)	Ikasiz, planetariumaz eta museoaz gozatzea
LH 5. maila	Urriak 30	Herri musika txokoa	Euskal musika tresnak ezagutzea
LH 5. maila	Abenduak 1	Oiartzun	Xiba topaketan parte hartzea (pilota)
LH 5. maila	Abenduak 5	Gernika-Bilbo	Euskal Herria gaia sakontzea
LH 6 maila	Irailak 23	Zumaia - Flysha	Lur planetaren sorrera eta bilakaeraren azterketa
LH 6 maila	Urriak 19	Luberri museoa	Lur planetaren sorrera eta bilakaeraren azterketa
LH 6 maila	Abenduak 1	Tolosa	Txotxongilo nazioarteko topaketara
LH 6 maila	Abenduak 14	Donostia	Zinema euskaraz





Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza 1-2-3-4

MAILA	NOIZ	NORA / NON	HELBURUA
DBH1	Irailak 16	Haurtzaro-Karrika-Haurtzaro ibilaldia	Irakasle eta ikasleen arteko harremanak sendotzea
	Irailak 26	IV. argazki lehiaketa	Argazkigintzaz gozatzea
	Irailak 19	Ikastola-Kuadrillategi egitasmoaren aurkezpena	Aisialdian lagunarteko giroan hizkuntza jarrerak sendotzea
	Urriak 20	Zientzia museoa	Unibertsoaren ezagutza
	Azaroak 22	Berde berdea ekimena	Berde-berdea proiektuaren aurkezpena
	Abenduak 2	Xabier Eguna	Euskararen eguna ospatzea
	Abenduak 21	San Tomas azoka	Euskal kultura ezagutzea eta euskal tradizioetan parte hartzea
	Abenduak 24	Olentzero eguna	
DBH2	Irailak 16	Haurtzaro-Karrika-Haurtzaro ibilaldia	Irakasle eta ikasleen arteko harremanak sendotzea
	Irailak 26	IV. argazki lehiaketa	Argazkigintzaz gozatzea
	Urriak 20	Mirandaola Zerain	Burdinola, haizeola eta zerrategiek euskal industrializazioan eta ekonomian izan duten eragina ikustea
	Abenduak 2	Xabier Eguna	Euskararen eguna ospatzea
	Abenduak 21	San Tomas azoka	Euskal kultura ezagutzea eta euskal tradizioetan parte hartzea
	Abenduak 24	Olentzero eguna	
DBH3	Irailak 16	Haurtzaro-Aldura-Haurtzaro ibilaldia	Irakasle eta ikasleen arteko harremanak sendotzea
	Irailak 26	IV. argazki lehiaketa	Argazkigintzaz gozatzea
	Urriak 26	Herri kirol topaketak Lezon	Herri kirolak praktikatzuz ezagutzea
	Azaroak 11	Zientzia Astea Donostian	Zientzia eta teknologia astean parte hartuz proiektuak ezagutzea
	Azaroak 28- Abenduak 1	Motibazio saioak	Euskararen inguruko hausnarketa
	Abenduak 2	Xabier Eguna	Euskararen eguna ospatzea
	Abenduak 21	San Tomas azoka	Euskal kultura ezagutzea eta euskal tradizioetan parte hartzea
	Abenduak 24	Olentzero eguna	
DBH4	Irailak 16	Haurtzaro-Aldura-Haurtzaro ibilaldia	Irakasle eta ikasleen arteko harremanak sendotzea
	Irailak 26	IV. argazki lehiaketa	Argazkigintzaz gozatzea
	Irailak 26-27	Piragua ikastaroa Bidasoa ibaian	Piraguako ikastaroa
	Urriak 29	Irudi biziak Irunen	Etikako irakasgaien inguruko lanketa
	Azaroak 11	Zientzia Astea Donostian	Zientzia eta teknologia astean parte hartuz proiektuak ezagutzea
	Azaroak 28- Abenduak 1	Motibazio saioak	Euskararen inguruko hausnarketa
	Azaroak 30	Hiesaren eguna Haurtzaron	Hitzaldia: Hiesa
	Abenduak 2	Xabier Eguna	Euskararen eguna ospatzea
	Abenduak 21	San Tomas azoka	Euskal kultura ezagutzea eta euskal tradizioetan parte hartzea

HAURTZARO IKASTOLAKO

IV. ARGAZKI

Lehiaketa

Pasatu al zarete ikastolako DBHko korridoreetatik? Egin duzuenok konturatuko zineten aurten ere kolorez jantzi ditugula; gure ikasle artistek argazkigintzan duten maila ikaragarria erakutsi dutela, beste behin ere.



Mikel Iparragirreraren argazkia

IV. Argazki Lehiaketaz ari gara hizketan. Urtero legez, kurtso hasierako bidaian, "Natura eta harremanak" gaitzat hartuta, ikasleek argazki lehiaketa honetan parte hartzen dute. Aurten ere ikasle dezente animatu dira eta esan dezakegu ez direla makalak.

Mikel Iparragirre izan dugu aurtengoan garaile DBH 1. zikloan eta argi utzi du gure artean kolore guztiek dutela euren txokoa lorez betetako argazki ederrean. Oier Mugarzak eta Paul San Sebastianek aipamen berezia jaso dute euren "Eskuak lotuta" eta "Lagunen artean" argazkiekin.





Iñigo Ruiz de Azuaren argazkia

DBH 2. zikloan berriz, Iñigo Ruiz de Azuak irabazi du saria “Basoa lainopean” izeneko argazkiarekin. Fatuma Isasak “Barraskilo abenturazalea” aurkeztu eta aipamen berezia jaso du.

Eskerrik asko parte hartzaile guztiei eta jarraitu horrela gure begiak alaitzen eta zuen afizioa indartzen. Pullitzer saria geroz eta gertuago duzue eta!

Zuek, berriz, oraindik ikusi ez badituzue argazkiak, eman ezazue paseotxo bat gure korridoreetatik eta dastatu bertako koloreak, merezi baitu!



Eskolako Agenda 21

Ikastolako ingurumen ekintzetan parte hartzea sakonduz



Haurtzaro ikastolak erakunde bezala zein berau osatzen dugun kideok azken urteetan dugun ingurumenerako sentiberatasuna eta jarduna nabarmena da. Testuinguru honetan, aurrean ere, Agenda21 proiektuaren barruan hiru egitasmo nagusi egiteko lagungarriak gerta daitezkeen urratsak egingo ditugu: Eskola Agenda 21 programa, Hondakin berezien kudeaketa eta “Erosketa Berdea” izeneko prozesua, hain zuzen ere.

1. ESKOLA AGENDA 21 PROGRAMA: Gure haranaren bioaniztasunaz goza dezagun!

Oiartzungo Udala, Ingurugela eta Mendi Enara elkartearen laguntzaz, azken ikasturteetan mugikortasunari heldu eta hondakinen kudeaketa aztertu eta ekin ondoren, aurrean gure haranaren biodibertsitateaz jabetu, zaindu eta gozatzeko asmoz tinko arituko gara lanean.

Aipaturiko egitasmoan, ikastolako haur txikiek eta DBHko helduek jardura batzuk egingo dituzte, ikastolako Agenda 21eko koordinazio taldearen gidaritzapean. Honela, lehen fasean, Bioniztasuna kontzeptua ezagutarazteko motibazio eta sentsibilizazio-saioak antolatu ditugu; segidan, etxetara diagnostikoa egiteko testa eta azken fasean, ekintza-planari ekingo diogu.

2. HONDAKIN BEREZIEN KUDEAKETA

Helburu nagusiak:

1. Biodibertsitateari buruz sentsibilizatzea eta ezagutzak hartzea.
2. Gizakiok ingurunean dugun eragina ulertzea.
3. Ingurumenaren eta garapen iraunkorraren garrantzia geure gain hartzea, baita horien kudeaketari buruzko problematika ere.
4. Oiartzun haraneko ekosistemen garrantzia ezagutzeko biodibertsitate iturri gisa, eta biodibertsitate biologikoaren kontserbazioak gizakiontzat daukan garrantzia balioestea.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin, aurreko urteetan landutako hondakinen arazoari ere helduko diogu, guk sortutako hondakinen eta horien kudeaketa hobetzen beste urrats batzuk emateko asmoz.

3. EROSKETA BERDEA

2004ko urtetik aurrera Europako Batzordeak sortu eta bideratutako ekimen berria gurean badabil. Zertan datza? Produktuak erosterakoan edota kontratatzerakoan, irizpide ekonomikoez eta teknikoez gain, horiek beren bizi ziklo osoan eragiten duten ingurumen inpaktua ere kontuan hartzea. Esaterako, papera eta eskola materiala, ekipo informatikoa, garbiketa produktuak, elikagaiak, argiztapena...

Horrek zera esan nahi du, erabili nahiz erosten diren materialen eta produktuen ingurumen portaera eta haien erabilera eta fabrikazio prozesua ez ezik, kontratuak gauzatzeko metodoak eta prozedurak eta, hornitzaileen eta ekoizleen ingurumen portaera ere hartu behar direla aintzat.



Haurtzaro Gwiseni (Britainia) trukea



Dagoeneko martxan da Haurtzaro-Gwiseni (Bretainia) ikasleen arteko trukea. Bi ikasturtez behin gauzatzen da proiektua eta aurtengoa jada hirugarrena izango da. Denok dakigun bezala, DBH 3. eta 4. mailetakako ikasleek hartzen dute parte eta proiektuaren xedea gaztelania edo frantsesa ikasteko grina piztea da.

Haurtzaroko 30 familiak hainbeste ikasle jasoko dituzte martxoaren 25etik 31ra bitarte. Gwiseniko 30 familiantan beste hainbeste ikasle oiartzuarrek hartuko dute osatu apirilaren 22tik 29ra bitarte.

Alderdi guztiak kontuan hartuta, ikasleen zein ardura-dunen esanetan esperientzia oso positiboki baloratzen da. Hala ere, ez ditzagun ahaztu zein diren helburu nagusiak:

- Frantsesaren maila areagotzea, ahozketasunari erreparatuz bereziki; klasean gehien lantzen den idazmen eta entzumeneko trebeziez gain, mintza praktika lantzea komunikazio egoera desberdinetan: eskolan, familian, gizartean, aisialdian...
- Frantsesa hizkuntza tresna duen gizarte batean murgilarazi, errealitatea bizi, ikasgelan ikasitakoa praktikan jarri. Horiexek lirateke helburuetan garrantzitsuenetakoak.
- Europar herrialdeen Europa eraikitzeako proiektuan aniztasun linguistiko eta kulturalak berarekin duen aberastasunaz ohartaraztea, europar izatearen kontzientzia indartuz.

- Bi herrialdeetako hizkuntzak murriztuak izanik, hauen errealitatearen zuzeneko lekuko izatea, eta elkartasun lokarriak eraikitzea.
- Ikasleen tolerantzia, solidaritatea eta errespetua sendotzea, atzerrian biziko dituzten desberdintasunak ulertuz.

Argi eta garbi esan genezake proiektu honek hezkuntza komunitateko eremu desberdinetan duela eragina. Alde batetik, ikasleek hizkuntza lehenengo aldiz egoera errealean erabiltzeko aukeraz gozatzen dute, arrotza edo ezezaguna zaionari aurre eginez, mugak gaindituz, eta, horrek guztiak beren garatze prozesuan urrats handia dakar. Beste giza eredu batzuk ezagutzea, eta horiek baloratzea, ikuspegi irekiago eta toleranteago bat eraikitzeako giltza dira eta proiektu honek hori ahalbidetzen du.

Bestalde, hizkuntza murriztuekiko kontzientzia eta elkartasuna bultzatu ditugu; izan ere, geure ama hizkuntzaren egoeraren antzekoa pairatzen baitu bretoierak.

Bidenabar, elkartasun horren ondorioz, hizkuntza batek bizirik irauteko beharrezkoak dituen baliabideak edo urratsak zein diren pentsatzera eramaten ditu ikasleak.

Haurtzaro ikastola 2011ko azaroa.



Proiektuan parte hartuko duten ikasleak



HAURTZARO IKASTOLAKO
Mendi Taldea
2011/2012 irteerak

**MENDIAN GORA HARITZA,
AHUNTZAK HAITZEAN DABILTZA.
ITSASOAREN ARIMAK DAKAR
UR GAINEAN BITSA...**

Urte asko daramatzagu Haurtzaro mendi taldean lanean mendizaletasuna eta naturari zor diogun errespetua lau haizeetara zabaltzeko asmoz. Ikastolakook urriaren 23an eman genion hasiera denboraldi berriari Artikutzako parajeak bisitatuz. Ekainera arte hilean behin mendi irteera egingo dugu ikasle eta guraso askok. Zuek ere animatu zaitezte! Hona hemen denboraldi osorako irteerak:



Urriaren 23an

Eskax - Artikutza - Eskax - Bianditzeko gaina



Azaroaren 20an

Santa Ageda - Murumendi (868m) - Mandubia



Abenduaren 4an

Biandizko gaina -
Artikutzako trenbidea
Karrika



Urtarrilaren 28an

Iraupen eskiko Ikastaroa Somport-en



Otsailaren 26an

Elurretxe - Irustako Urjauzia - Ibarla



Martxoaren 18an

Guadalupe - Jaizkibel (545m) - Pasai Donibane



Apirilaren 22an

Araia - Aratz (1.443m) - Otzaurte



Maiatzaren 20an

Leizatik Lekunberrira txirinduz



Ekainaren 3an

Ikastola Eguna: JINKANA

HAUR HEZKUNTZA 1

HIRU URTEKOAK IKASTOLAN OSO KONTENT GABILTZA!

EGUNEAN ZEHAR GAUZA ASKO EGITEN DITUGU:

TXERRIKUME, TXANOGORRITXU... ETA OTSOAREN IPUINAK ANTZEZTU,

OLERKIAK IKASTEN SAIATU ETA MARRAZKIAK MARGOTU

ETA... KANTAK IKASI. GERO ABESLARIAK BEZALA ABESTU.

HAUR HEZKUNTZA 2

NAHIZ TXILLIDA LEKU ITXI,
H.H. 2KO IKASLEOK BADAIGU
NORA JOAN TXILLIDAREN
ARTELANAZ GOZATZEKO.

BEGIRATU ONGI ARGAZKIA
ETA EA ASMATZEN DUZUEN
NON GAUDEN?

HH 2







HAUR HEZKUNTZA 3

BAZD RA JOAN GINEN
HOSTOAK BILDU GENITUE
ETA

1. ESTAMPATZIOAK EGIN
GENITUEN



2. IRUDI POLITAK EGIN GENITUEN



3. ZUHAITZAK OSATU
GENITUEN ETA....



4. UDAZKENEKO ERAKUSKETA
ANTOLATU GENUEN



EUSKARAZ BIZI 1. kanpaina

Ikasturte berria bide sendoa hartzen ari da, eta horrekin batera, baita gure bide-lagun den Euskaraz Bizi egitasmoa ere. Lehenengo ebaluazio honetan, besteak beste, 1. kanpaina eta Euskararen Nazioarteko Eguna antolatzea izan dira eginkizun nagusiak.

Lehenengo kanpaina azaroaren 21ean hasi zen eta abenduaren 2an, Euskararen Nazioarteko Egunaren bezperan, amaitu zen. Hamabostaldi horretan zehar, IDAZKETA (ipuinak, narrazioak, poesiak...) lantzea izan zen helburua.

Euskarazko erabilera traketsak zuzentzeko tarteak ere izan genituen eta kanpainak iraun zuen bitartean landu genuen esaldia hauxe izan zen:

Abenduak 2an Argitxo etorriko da ikastolara.

Abenduaren 2an Argitxo etorriko da ikastolara.

Kanpaina girotzeko, Esne beltza taldearen Euskaraz bizi nahi dut abestia aukeratu genuen. Izan ere, abestiak dioen bezala, etxean, kalean, lanean, lagun artean, mendira joatean eta ohera sartzean... gau eta egun EUSKARAZ BIZI NAHI DUGU!

Gau eta egun euskaraz bizi nahi dut
ta gauza bera egin dezakezu zuk.
Euskaraz bizi nahi dut goizean goizik;
ez da amets bat, nire nahia da baizik.
Etxean, kalean,
lanean, lagun artean,
mendira joatean
eta ohera sartzean.



Euskararen Eguna ospatzeko, berriz, kantaldia antolatu genuen. Ikasle nahiz irakasleak gogotsu aritu ziren abestiak prestatzen eta oso arrakastatsua izan zen.

Hemendik aurrera ere buru-belarri lanean jarraituko dugu kanpainak eta beste-lako ekimenak prestatzen. Izango duzue gure berri!

EUZKARAZ BIZI TALDEA





EUSKARAZ BIZI: euskararen eguna

Jakinekhoa denez, euskararen omenetan hainbat eta hainbat ekitaldi eta jardun egiten dira. Horietako bat, guztietatik nabarmenena, Euskararen Nazioarteko Eguna da, urtero-urtero, abenduaren 3an, Xabierko Frantzisko deunaren egunez ospatzen dena. 1949. urtean sortu zuen egun hau Eusko Ikaskuntzak eta euskararen balio unibertsala aldarrikatzea du xede.

Aurten Euskararen Eguna larunbatean izaki, Haurtzaro ikastolan bezperan, abenduaren 2an, ospatu genuen. Goizean, pregoia entzun eta euskararen aldeko konpromisoak hartu zituzten ikasleek; eta arratsaldean, berriz, kantaldi ederra eskaini zuten.

Gainera, Argitxoren bisita izan genuen. Txikienekin bere urtebetetze eguna ospatu ondoren, kantaldian parte hartu zuen eta, pozaren pozez, euskararen alde egindako lana eskertu zigun, horrela bere kriseiluak pizturik jarraituko baitu.

Hau guztia antolatzen Euskaraz Bizi taldea eta Eskuttun ikasleen euskara elkarteak aritu ziren, eta aurrera eramateko ikasle eta irakasleen gogoia eta laguntza jaso zuten.

Aurretik





Arratsaldean Argitxoren urtebetetzea

Euskararen TXOKOA



Ekitaldi nagusia KANTALDIA





ESKUTTUN, *energia* ETA GOGO BIZIZI!

Zazpi urtez euskararen alde buru-belarri lanean aritu ondoren, Eskuttunen historian zortzigarren kapitulua idazteko energia eta gogo biziz gatoz! Aurten 34 lagunen artean banatuko ditugu eginbeharrak. Talde txukuna osatu dugu, eta lanerako gure arma den hitza zorrozten ari gara.

Gure egitasmoak hiru ildo nagusi izango ditu: ikastolako egitasmo orokorrak, hau da, beste ikasleekin konpartitzekoak; barne analisiak, Haurtzaroko euskara maila neurtu, zein akats errepikatzen diren ikusi...; eta azkenik, Oiartzungo nahiz herritik kanpoko erakundeekin loturikoak.

Aipaturiko egitasmo orokorretan, hiru kanpaina bereiziko ditugu. Kanpaina bakoitza hizkuntza gaitasun batekin loturik dago. Horrela, lehenengoan, komunikazio idatzia landuko dugu; bigarreanean, ahozko komunikazioa; eta hirugarrenean, aldiz, irakurzaletasuna bultzatzea izango da gure helburua.

Ikastolak antolatutako ekitaldietan ere parte hartzen jarraituko dugu, hala nola Euskararen egunean, Inauterietan, Santa Agedan, San Nikolasetan, Ikastolaren Egunean... beti ere, euskara egoki erabiltzen dela ziurtatuz eta euskararen garrantzia gogoraraziz.

Barne analisiak deiturikoan, Haurtzaro ikastolako ikasleen euskara maila hobetzen ahaleginduko gara. Izan ere, ikastolan zenbaitetan euskararen legeak urratzen dira “hoi jodida!”, “hoi parida!”, “noa etxera”, “euria dago”, “iluntasun asko ari du”, “bere zorionak dira”, “zeba ez dugu horrela egiten?”... eta antzeko esaldien bidez. Eskuttuneko ikasleok gehien erabiltzen diren esaldi oker horiek identifikatu eta, horretarako prestatutako kortxoetan, molde zuzenak zintzilikatuko ditugu.

Oiartzungo nahiz herritik kanpoko erakundeekin ere lan egingo dugu, Ttur-ttur euskaltzaleon bilgunearekin, Euskararen itotiyak taldearekin... Aurten, bereziki, Oiartzungo euskalkia babesteko ahalegina egingo dugu. Kontuan hartu behar da gure herriak oso hizkuntza-ondare aberatsa daukala; gure aitona-amonek, “oiartzuerak” berezko dituen hainbat hitz erabiltzen dituzte: “patzoia”, “kulunpiyua”... eta horietako asko galtzear daude. Euskararen itotiyak taldearen laguntzarekin, hitz horiek bildu eta gure ikastolan zabalduko ditugu.

Beraz, Eskuttunek oiartzueraren aldeko apustu sendoa egin du. Ikastolako eremu guztietatik —jantokia, garraioa...— at ere, gure atzaparrak iristea nahi genuke, eta jendea oiartzueraren garrantziaz ohartzea.

Lanari beldurrik ez diogu, beraz, lanari helduko diogu!

Eskuttun

<http://eskuttun.ikasblog.net/>





gazte forua

Euskararen TXOKOA



Beste urte bat geyo berriz e gazte foruko jendia lanin ai gala.
Irailin hasi giñan ta asteazkenero biltzen ga.



Hillabetin behin ekintza bat antolatiaz gain beste gauza batzuk e itten ttugu. Gai askotaz hitzeitten dugu, gue kezak, nahiak, desiuk, asmuk... komentatzen ttugu. Bideuk ikusten ttugu, lagun berriyak ezautzen ttugu, ta onena da erki pasten dugula. Par batzuk botzen ttugu.

Gustua bazute torri lasai gukin. Asteazkenero 14:30 tan juntatzen ga ikastolako sarrera nagusiyan ta bestela nahi zutenin torri liburutegira, hantxe eoten ga. Bakoitzak al duguna itten dugu ta al dugun ordutegiyan, batzuk lenoztik juten ga (entrenamentua, musika bait dugu) ta bestik beranduo torri, ez to problemik. Atiak irekiyak dozte ta bakoitza al dugun bezela mol-datzen ga.

Ez bazazte billereta tortzen e al tanto eon hillabetero ingo dugu zerbatte ta. Ta ideiak battuzte o zerbatte antolatzia nahi bazute bakizute gui san ta antolatzen saiatuko ga. Zuen geletan battuzute ordezkariyak, tuintin badugu kontua o bestela asteazken batin azal-du ta san.

GU IDEIA BERRIYAK JASOTZEKO PREST BETI!
(ta jendia re bai noski)

Ondo izan gaztiak!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!

Kuadrillategiko Kontuak



Aurten e martxan da Kuadrillategi ta iñoiz miño indar haundi-yagukin gañea. Geoz ta gazte gehiok maten du izena egitas-mun ta urtetik urtea zifra hoi haunditzen ikustik izugarrizko poza maten digu hezitzaillai. Ez da makala ehun gazte inguru Iturriozko dorretxin (o inguru-tan) biltzia ostiralero ta ongi pastia gañea!

Dakizuten bezela, lehengo urtian aurretik DBH 3 ta 4.go gaztai ematen zitzairen aukera egitas-mun parte hartzeko; miño Kua-drillategin helburua hizkuntza ohiturak finkatzia dela kuntutan hartuta (gaztiak euskeraz hitzei-tteko ohitura hartzia ta dutenak mantentzia), kusi zen agiyan hobe izango zela DBH 1 eta 2kuri aukera matia. Ta bueno, emaitza oso positibua dula irui-tzen zaigu; ta hola jarrai zala.

Kuadrillategi euskeraz hitzeit-teko gun e bat izatiaz gain, aisial-

dirako re badela jakiña da. Ta sango zute: "ez al digute konta-tu ber euskeraz hitzeittiaz apar-te ze itten ai din aurten o?". Noski baietz!

Gaztiak dia ostiralero ekin-tzak pentsatu ta aurea erama-ten ttutzenak (begiralin lagun-tzakin, hoi bai) ta beraz beaiek erabakitzen dute zer in ta zer ez. Adibide batzuk ematetik: pintxo lehiaketa, karaokia, kirol ezberdinen txapelketa... ta holakuk in ttugu oan arte; ta hemendik aurreako re beste hainbeste gauza o gehio battuz-te pentsatuk gue gaztiak.

Ta holaxe ba lehengo urtetik honea kontatzeko genittunak; datorren urteko Txinparten gehio ta okiyo! AUPA KUADRI-LLATEGI!

Irati Odriozola
Kuadrillategiko hezitzailea



LH1

DINOSAUROAK?

ZER DIRA?

LUBERRIRA JOAN GINEN DINOSAUROAK ZER DIREN IKASTEKO ETA, A ZE SORPRESA!

DINOSAUROAK LURREAN IBILTZEN ZIREN ANIMALIAK OMEN ZIREN. GURE GUSTUKO PTERODAKTILOA ANIMALIA HEGALARIA ZEN, BAINA EZ DINOSAUROA ETA IKTIOSAURUA URETAKO ANIMALIA BESTERIK EZ.

FOSILAK ERE IKUSI ETA UKITU GENITUEN ETA ORAIN BADA KIGU KLARAREN AURKEZPENARI ESKER DINOSAUROAK IZAN ZIRELA.

IKUSTEN DUZUENEZ, ONGI BAINO HOBETO PASATU GENUEN ETA ZUEK NAHI IZANEZ GERO JOAN ETA UKITU, IKUSI ETA IKASI.

LH1.MAILA



LH2

ERDI AROA





LH3

“Gure txoko kuttuna” izan da 3. mailan landu dugun lehenengo unitatearen izenburua. Eta egin ditugun lagun berrien laguntzaz, Mei Li, Xabier, Maider, Kleo, Martin, Xarpa eta Morgan, gure herria hobeto ezagutzeko aukera izan dugu.

Hasteko, Oiartzun Euskal Herriko mapan kokatzen ikasi dugu, zein herri dituen mugakide, zenbat biztanle garen herrian, zenbat auzo dituen... Eta bildutako informazioarekin azalpen testuak idatzi ditugu.

Ondoren, bertako auzo horiek gertutik aztertu ditugu: zein auzo mota diren, bertan zein zerbitzu dauden... Eta egindako lanarekin mural bat osatu eta korridorean jarri dugu, gainerako ikaskideek ere non bizi garen jakin dezaten.

Gaiarekin amaitzeko, herrian barrena ibilaldia antolatu eta ikasitako guztia geure begiz ikusteko aukera izan dugu.





LH4

AMERINDIARRAK, 4. MAILAKO IKASLEEN LAGUNAK!

Txanelako bigarren unitatearekin asko gozatu genuen, amerindiarren gaiarekin hain zuzen ere. Basamortuko biztanleak, Lautada Handietakoak, Inuitak, Aztekak, Maiak, Inkak... Hilabete baino gehiago pasatu genuen beren artean, beren bizimodua ezagutuz, ohiturak, eraikuntzak, janzkera...

Behin baino gehiagotan egin genuen lo Tipietan, eta zaldi gainean ehi-zara joan, edo suaren inguruan dantzan ibili. Irudimenarekin ere bidaia daitekeela geroz eta argiago daukagu! Material asko bildu genuen Txoko Txurietan, eta baita gure izen "indiarrekin" pasilloa apaindu ere!

Begira, begira zein kantu politak asmatu genituen indiarrekin batera dantza egiteko:



**Tipi,
xun ka ua kan,
sung manitu tan ka,
ta tan ka,
ta tan ka!**

**Xunka! Xunka!
Sung maketu,
tipi,
ta tan ka,
ta tan ka!**

Zoritarrez, kolonizazioak ondorio oso txarrak izan zituen gure lagun amerindiarrentzat, baina guk beti izango ditugu gogoan!



LH5

IZARREN HAUTSA

Kaixo, lagunak:

Hiruhileko honetan Izarren Hautsa unitate barruan plastikan egindako lanak erakustera gatoz.

Poesia ere landu dugu eta hemen dituzue horren bi adibide.

Gustatuko zaizkizuelakoan hurrengo arte.

LH 5. mailako ikasleak.



KATTAGORRIA

Ni kattagorria izango banintz,
zuhaitzetik zuhaitzera saltoka ibiliko nintzateke.

Eta zuhaitzetik zuhaitzera saltoka ibiliko banintz,
ezkurak hartuko nituzke.

Eta ezkurak hartuko banitu,
nire zuhaitzean gordeko nituzke.

Eta nire zuhaitzean gordeko banitu,
ezkur gehiagoren bila joango nintzateke.

Eta ezkur gehiagoren bila joango banintz,
nire zuhaitzean gorde eta negua iritsi arte itxarongo nuke.

Eta negua iritsi arte itxarongo banu,
negua iritsiko litzateke.

Eta negua iritsiko balitz,
ezkur guztiak jango nituzke.

Eta ezkurak jango banitu,
telebista ikusiko nuke.

Eta telebista ikusiko banu,
ohera joango nintzateke.

Eta ohera joango banintz,
amets goxoak izango nituzke.

Eta amets goxoak izango banitu,
esnatu egingo nintzateke.

Eta esnatu egingo banintz,
lanean jarraituko nuke.

Olatz Irazoqui

AMETSA

Lorea zelaian
Zer
dator ondoren?

Zelaian
ur tantak
Zer dator ondoren?

Ur tantak
gure begietan
Zer dator ondoren?

Zure begietan
amets zoragarriak
Zer dator ondoren?

Amets zoragarritan
beti
zu zaude.

Ekhiñe Rivas

hatzak BETE LAN



LH6

GU, ESKULTURGILE ETA IDAZLE

Txanelako 1. unitatean, Plastikan, Euskal Herrian izen handia duten bi eskultore izan ditugu aztergai: Eduardo Txillida eta Jorge Oteiza.

Beren bizitzari buruzko hainbat bitxikeria eta gauza interesgarri ezagutzeaz gain, egin duten lanaren berri izan dugu. Harriz, egurrez eta burdinaz berek egindako arte lanak ezagutu eta aztertu ditugu eta imitatzen saiatu gara. Guk papera, kartulina eta buztina erabili dugu. Kuboak, irudi geometrikoak, logoak, eskulturak etab. landu ditugu eta bukaeran, Gaztelaniako proiektuarekin bat eginaz, erakusketa dotorea muntatu dugu.

Bestalde, Udaleko Prosa eta Poesia lehiaketarako burubelarri ibili gara, jo ta ke lanean, ipuinak eta poesiak egiten. Ez dakigu saririk jasoko dugun, baina asko disfrutatu dugu. Hemen duzue adibidea.

LH 6.m

GAUA ETA EGUNA


Gau iluna iritsi da,
eguna bukatu da.
Ilargia izarrekin
dantzan ari da
loak hartu nauenean.

Sagutxo Perez etorri da
eta isil-isilik
bost euro sartu ditu
burukiaren azpian
loak hartu nauenean.

Amets gaiztoak izan ditut
izar usoa pasa da,
Olentzero etorri da
eta opariak utzi dizkit
loak hartu nauenean.

Eguna iritsi da,
eguzkia esnatu da.
Gaua eta ilargia joan dira,
joan dira izar usoa,
joan dira amets gaiztoak.

Sagutxo Perez eta Olentzero
gelditu dira.
Oilarrak kukurruku,
banoa jolastera,
banoa jolastera.





Jokin Irastorza
DBH 1

DBH1

Unibertsoa ezagutzeko Teknologia

Gizakiak, betidanik izan du unibertsoarekiko grina berezia. Zeruan, gauez azaltzen ziren puntu distiratsuak zer ziren; Eguzki-argiaren jatorria; Ilargia bera... gizartean eragin handia izan duten gaiak dira, erlijio kontuetatik hasi eta eguneroko berriketetaraino. Bada gai hori jorrazten duen zientzia bat: *astronomia*.

Hasiera batean, begi hutsezkoa zen astronomia. Nahiz eta zentzumenek mugak izan, historian zehar, zenbait zibilizazioek egutegiak, nabigazio teknikak, orientazio teknikak... garatu zituzten unibertsoari esker.

Begi hutsez ikertze horretan, planisferioa asmatu zen. **Planisferioa** "zeruko plano" dela esan genezake. Astronomoek izarrak identifikatzeko erabiltzen duten plano, hain zuzen ere.

Hurrengo asmakizuna **teleskopioa** izan zen. Teleskopioa irudia handiago eta hurbilago ikusteko balio duen tresna optikoa da.

Lehen teleskopioa, Herbeheretan azaldu zen, baina Galileo izan zen, espazioa ikertzeko erabili zuen lehena. Galileo Galilei astronomoak *errefrakzio teleskopioa* asmatu zuen. Teleskopio horrek bi lenteren bidez betetzen zuen bere funtzioa.

Gerora, Isaac Newton, matematikari, teologo, fisikari eta astronomoak, *islapen teleskopioa* asmatu zuen. Beti ere, errefrakzio teleskopioak baino irudi hobea ematen du Newtonen teleskopioak. Islapen teleskopioa argi izpiak zuzenean sartzen dira eta, ispilu ahur baten bidez, bigarren ispilu batera bideratzen dira, eta azken horretatik okularrera. Gaur egun ere teleskopio mota hau erabiltzen da, eta 10 metroko diamentrainokoak badaude.

Unibertsoaren begiztatze egokia egiteko, baldintza batzuk betetzen dituen lekua behar da. **Behatoki-astronomikoak** behaketa astronomikoak egiteko erabiltzen diren leku egoki horiek dira. Normalean, mendietan edo basamortuan kokatu ohi dira, lainoak, argi-kutsadura, ke-kutsadura, eta horrelakoak ekiditeko.

Oro har, normala da Lurretik baino ikuspegi hobea espaziotik bertatik izatea. Beraz, **teleskopio-espazialak** sortu

dira. Teleskopio horiek, izenak dioten bezala, espazioan kokaturiko teleskopioak dira. Horien artean dugu Hubble teleskopioa.

Teleskopio-espazialek astroen irudia jasotzen duten bezala, **irradi-teleskopioek** astroek igorritako irradi-seinaleak jasotzen dituzte, eta ondoren, Lurreko radar-estazioetan, seinale horiek hartu eta aztertzen dira.

Dudarik gabe, unibertsoa ikertzeko modurik egokiena bertara bidaiatzea da. Horretarako, **espazio-ontziak**, **zunda-espazialak** eta **sateliteak** erabiltzen dira. Espazio-ontzietan, gizakiek bidaiatu ohi dute, esate baterako, Lurraren orbitara, eta Ilargira. Egun, gizakia Martera eramango duen ontzi bat diseinatzen, garatzen eta egiten ari dira. Baina nola bidaiatu gizakiaren mugetatik at? Zunden eta sateliteen bidez. Zundak ikertu nahi ditugun astroetara bidaltzen ditugun robotak dira. Robot horiek astroko laginak aztertu, irudiak bidali etab. egiten dituzte. Sateliteak, aldiz, astroaren orbitan jartzen dira, eta irudiak bidaltzen dituzte. Bidaia hauetan eta bidaia hauen prestakuntzetan oinarritzen den zientzia *Astronautika* da.

Astronomia eta astronautika. Bi zientzia hauei esker, gaur egun, unibertsoari buruz dugun irudia garatu ahal izan dugu. Garai batean uste zuten Lurra laua zela; ondoren, teoria *geozentrikoa* etorri zen, Lurra biribila eta unibertsoaren erdigunea zela esanez; gero, teoria *heli-zentrikoa*, unibertsoaren erdigunea Eguzkia zelako ideia defendatuz; eta gaur egun uste dute Big-Bang-a gertatu zen puntua dela erdigunea. Horrelako teoriak frogatzeko, beharrezkoak dira unibertsoa ezagutzeko dauzkagun teknologia. Planisferio, teleskopio, espazio ontzi, zunda-espazial, satelite... asmakizun horiei esker ezagutzen dugu unibertsoa, ziurtatu gabeko teoriak edo sinesmenak alde batera utziz.

Denborak aurrera darrai, eta gizakiaren adimenaren poderioz, gainerako zientzietan bezalaxe astronomian eta astronautikan, aurrerapauso handiak emango dira, eta orain misterio direnak, laster argituko dira.

DBH 1. mailako
Jokin Irastorza



Naroa del Rio
DBH 1

Ongi etorri

Ehunka geunden, bata bestearen ondoan ilaran jarrita. Nire ondokoa gorri koloreko poliesterez egindakoa zen. Ni neu, orde, berde kolorekoa nintzen, eta letra larriz bi hitz nituen soinean grabaturik: "ONGI ETORRI".

Egun luzeak igaro nituen ilaran jarrita, geldirik, mugitu gabe, aurretik igarotzen zitzaizkigun milaka begiradei so.

Halako batean, begirada haietatik ezberdinak ziren bi gerturatu zitzaizkidan. Bi begi bikote horiek ilusio eta maitasun usaina zekarten. Gizonak bere esku latzen artean hartu ninduen eta ondoren emakumeak bere azal goxoarekin laztandu. Ehunka lanpas horiek atzean utzi nituen, eta hirurok batera merkatutik atera ginen.

Etxera iristean, atzealdean neraman pegatinatxoak kendu zidaten, ordura arte ikusi gabea nuena: "Made in the Basque Country", "19.90€".

Lanpas haien ilararen parte nintzen moduan, etxe hartako parte izatera igaro nintzen. Leku guztiz pribilegiatua neukan, sarrerako atearen pean bainengoen; bertatik igaro behar zuten etxe hartara sartzen eta ateratzen ziren guztiek.

Goizetan, irribarrez irteten ziren biak etxetik eta atea irekitzean barnealdeko goxotasun hura senti nezakeen. Ilunabarrean etxera bueltatzean, irribarre bera zeramaten kolore biziz aurpegian margoturik.

Ez zen denbora asko pasa behar izan sumatzen nituen goxotasun eta laztanak garrasi bihurtzeko. Batzuetan danbakekoak ere entzuten nituen, goizetan irribarreen falta sumatzen nuen. Emakumea lehenengo eta gizonezkoa ondoren. Emakumeak bere hanka finekin zapaltzen ninduen bitartean zapore gaziko ur tanta epelak erortzen zitzaizkidan gainera. Ondoren gizonezkoak bortizki zapalduko zituen ur tanta epelak.

Egunak gero eta luzeagoak ziren, gogorrangoak. Gaua iristen zenerako nire lanak leher eginda uzten ninduen.

Azken aldian ez oso urruneko leiho batetik begi pare bat sentitzen nuen nire atzeko ateari so. Negu gorrian geunden, gau hotz batean, zerua inoiz baino beltzago zegoen eta izar ugari zeuden, ordura arte nik jasotako negar tantak bezainbat. Begira ibilitako begi haiek gerturatu eta nire lau erpinetako batetik helduz, lurretik altxatu, kezka betetako gutun bat utzi eta haren gainean ipini ninduen. Hurrengo egunean, emakumeak, jakingo balu bezala, erpin beretik altxatu eta gizon hark utzitakoa jaso zuen, niri beste malko bat isuriz.

Handik bi egunera, emakumeak min eta tristuraz betetako gutun bat utzi zuen. Denbora luzea eman zuten nire etxeko emakumeak eta aurreko etxeko gizonak gutun bidez komunikatzen. Era guztietako sentimenduak sentiarazten zizkidaten, eta emakumeak isuritako ur gazi tantak gero eta gutxiago ziren.

Goiz batean, etxeko gizona azaldu zen nire azpiko gutuna hartzera. Bere atzean emakumea zegoen negar zotinka.



Maddi Ibarguren

hatzak **BETE LAN**

DBH2

ZURI BEGIRA

Zeru altura begiraten nuen
eta ez nuen zeruaren urdinik ikusten
Itsaso zabalera begiraten nuen
eta ez nuen itsasoko kresalik usaintzen
Erreka barea begiraten nuen
eta ez nuen errekaaren urik entzuten
Su gorria begiraten nuen
eta ez nuen suaren berorik sentitzen
mendi garaietara begiraten nuen
eta ez nuen mendiaren berderik ikusten
Lore hauskorretara begiraten nuen
eta ez nuen lore hautsaren laranja usaintzen

Zoriak zure begietara eraman ninduen
Han topatu nituen
Zeruaren urdina
Itsasoaren kresala
Errekaaren soina
Suaren beroa
Mendiaren berdea
Eta lorearen usaina

Niregana hurbildu
Eta musu eman zenidanean
Izarrekin egin nuen lo
Zure ezpainetan

DBH 2. mailako MADDI IBARGUREN

Nire lau erpinekin heldu nintzen lurrera, ahal nuen indar guztiaz, baina alperrik. Gizon handiak gutuna bere esku zakarren artean eraman zuen berriz ere etxe barrura, etxe hotz haren barnealdera.

Ondorengo goizean, ez zen malkorik jausi nire poliester berdearen gainera. Oraingoan eroritako tanta gorri kolorekoa zen, dendako ilaran nire ondoan zegoen lanpasa baino gorriagoa, burdin zaporeko tanta gorria, inoiz sentitu ez nuen mina eta beldurra sentiarazi zidan tanta gorria.

Emakumea aurreko etxearen lanpaseraino iritsi zen erdi herrenka, atea jo eta gizon zintzoak ireki zion. Ez nuen gizonaren aurpegia ikusteko aukerarik izan, baina imajina dezaket. Hiruzpalau ordu geroago, biak irten ziren eskutik helduta. Emakumeak ubeldurak zeuzkan aurpegian, baina begietan zeraman distirak garrantzia kentzen zien more koloreko orban horiei. Niganaino gerturatu, beren besoetan hartu, eta hirurak joan ginen bertatik, gizon handia atzean utziz. Izotza baino hotzagoa bihurtu zen etxe hura atzean utziz. Etsipena protagonistatzat zuen bizitza hura guztiz eta betiko atzean utziz. Maitasun eta ilusiozko hasiera berri bati ongi etorria emanez.

DBH 1. mailako
NAROA DEL RIO



DBH4



Ane Dehesa eta Alaia Belaunzarán
DBH 4

Jakiunde

Jakiunde, zientzia, arte eta letren akademia 2007ko urriaren 25ean eratu zen Donostian Eusko Ikaskuntza-ren ekimenaren eraginez.



Akademia hau, maila goreneko erakunde aholkulari gisa, gizartearentzat erreferentziazko foroa izateko helburuz sortu zen. Ereduzko erakundea izatea du helburu, osieran nahiz jardueran; gidaria izatea, zorroztasun zientifikoarengatik eta ezagutzarengatik, eta ekintzekin eta aholkuekin gaur egungo arazoetarako egokiak diren irtenbideak aurkitzen laguntzea.



Gaur egun, jakiundeko lehendakaria Pedro Miguel Etxenike fisikaria da. Ikerkuntzako Euskadi saridunak, Principe de Viana saridunak eta Eusko Ikaskuntza saridunak daude Jakiundeko kideen artean, hau da, Literatura, Zuzenbidea, Historia, Antropologia, Zientzia, Zinema, Musika eta Arkitekturaren alorretako espezialista ospetsuak.

Estatutuen arabera, Jakiundeko osoko kideak urtean hiru aldiz elkartuko dira osoko bilkuretan, batzor-

de espezializatuek urtean zehar egindako lana berresteko xedez. Akademikoek berek osatuko dituzte batzordeak eta, hala erabakiz gero, dagozkien alorretako adituen laguntza izango dute.

Aurtengo ikasturtean zientzietako arloetan, hau da, Natur Zientziak, Biologia-Geologia eta Fisika-Kimikan, proposamen bat azaldu digute. Jakiunde ize-neko erakunde garrantzitsu batek ikastola eta eskola desberdinetako DBH 4. mailako ikasleei hainbat hitzalditara joateko aukera eman digute. Hauek bi multzotan sailkatzen dira, gai desberdinez osatutakoak, hala nola, nanoteknologia, euskara, burmuina eta adikzioa... Bestalde, gaietan jakintza handia dutenek ematen dituzte hitzaldiak, Pedro M. Etxenike, Ibon Sarasola, Nekane Balluerka...

Gure mailan bi pertsona bakarrik animatu garenez, DBH 3. mailakoei ere aukeran eman zaie eta hemendik ere bi pertsona animatu dira.

Bost hitzaldi izango dira, hilabeteetan bat, eta oraingoz bat baino ez da izan. Hauetara joaten diren pertsonak oro har kuriositate handia dutenak dira. Hitzaldia amaitutakoan galderak egitera animatzen gaituzte eta argi eta garbi erantzuten digute, guk ulertzeko moduan, baina oso terminologia profesionala erabili.

Esperientzia hau oso ona izan daiteke ikasle guztiontzat eta gure ikastolan aukera hau ematea oso aberasgarria da zientziaren inguruan informazio gehiago eta beldur gutxiago izateko.

DBH 4. mailako
Ane Dehesa eta Alaia Belaunzarán



Ainhoa Iragorri, Maria Lizarraga eta Argiñe Elizondo
DBH 4

DBH4

Seaskaren alde kontzertuak Oiartzunen



SEASKAREN ALDE KONTZERTUAK OIARTZUNEN

Azaroaren 26an Seaskari laguntzeko kontzertuak antolatu zituen Haurtzaro Ikastolak eta Ttur-tturrek. Beste urteetan helduentzako ekitaldiak antolatu izan dira, baina aurrean gazteei begira antolatu den jaialdia izan da. Elorsoro kiroldegian egin ziren kontzertuak: Esne Beltza, Betagarri eta Bad Sound System. Bertan bildutako dirua iparraldeko ikastolentzat izango da, dituzten arazo ekonomikoei laguntzeko.

Jaiko antolatzaileetako eta parte hartzaileetako bat Xabi Solano izan zen, Haurtzaro Ikastolako irakasle eta Esne Beltzako abeslaria. Bai gazte hau eta baita beste taldeetako musikariak ere jarrera aparta erakutsi zuten eta asko animatu zuten kiroldegian bildutako gazteria. Oiartzun, Orereta, Hernani, Astigarraga, Lezo, Donosti eta Irungo jendea bildu zen hiru talde hauen kantak dantzatzu eta kantatzu. Giro aparta sortu zen denon artean, hori bai, Seaskaren aldeko ekitaldia zela ahaztu gabe. Abeslariak animo handia bidali zieten Lapurdiko, Nafarroa Beherako eta Zuberoako ikastolei.

ESNE BELTZA

Esne Beltza Euskal Herrian sortutako musika talde bat da. Partaideak, Xabi Solano (ahotsa eta trikitia), Sergio Ordoñez "Patxuko" (ahotsa), Jon Mari Beasain (gitarra eta panderoa), Aitor Zabaleta (baxua), Pello Gorrotxategi (teklatura eta koroak), Zigor DZ (DJ-a), Iban Zugarmurdi (bateria), Haritz Lonbide (trontpetu), Jon Elizalde (trontboia) eta "Txino" (dantzaria). Talde honen musika reggae, ska eta hip-hop-aren nahaste bat da, trikitixarekin lagunduta.

BETAGARRI

Gasteizko musika taldea da, 1992an sortutakoa. Partaideak, Iñaki Ortiz de Villalba (abeslaria), Aitor (gitarrajolea), David Gabiña (saxofoijolea), Gontzo (gitarrajolea), Barney Dinosaurioa (baterajolea), Mikel Sanz (trontboijolea), Unai Lobo (trontpetajolea), Pablo Rodriguez (baxujolea), Iosu (baxujole berria).


BAD SOUND SYSTEM

DJ eta MC-en Irungo musika taldea da. Partaideak, Brujo (MC), Masta (MC), Kenitra (MC), DJ Sucio eta Stepi (hautatzailea). Talde honen musika hip hop, reggae, rap, dance hall, free style...

Beste aldetik, bertan lanean aritu ziren langileak ere primeran antolatu zuten dena gauerako eta lan bikaina egin zuten. Gainera, janaria eta edaria eskaintzen zen jaialdian eta izugarritzko giroa sortu zen kiroldegi inguruan.

Azkenik, guk, Haurtzaro ikastolako ikasleok, ospatu zen jaialdiarengatik eskerrak eman nahi dizkiegu Haurtzaro Ikastola eta Ttur-tturrekoei. Hasiera batetik primerako ideia iruditu zitzaigun urte honetan gazteei begira antolatutako ekitaldi bat egitea, lehen azaldu dugun moduan, eta hori eskertzekoa da.

DBH 4. mailako Ainhoa Iragorri,
Maria Lizarraga eta Argiñe Elizondo





DBH 4




Haizea Sáez de Eguilaz, Aroia Alkorta eta Enara Mugearza

DBH 4

Yon Oñatibia

Euskararen oinarri



Yon Oñatibia Audela Oiartzunen jaio zen 1911. urteko azaroaren 24an. Lehen ikasketak herriko eskolan egin zituen eta gero batxilergoa egitera kanpora atera behar izan zuen.

Musika eta euskara izan ziren, dantzarekin batera, Yonen bizitzako zutabe nagusiak. Ttitandik maite zituen txistua eta dantza. Bederatzi urterekin solfeoa ikasten hasi zen eta lehen pausoak bakarlarri edo solista gisan eman zituen.

Bergaran batxilergoa egiten ari zela, musikako ikasketekin aurrera jarraitu zuen, eta pianoa ikasten hasi zen.

1928an, Valladolida jo zuen zuzenbide ikasketak egitera. Han bi urte egin ondoren, Zaragozan jarraitu zituen ikasketak. Bertan, musika festa eta ibilaldi handiak antolatzen zituzten. Eta beste zenbait euskaldu-nekin elkartuta, Eusko Ikasleak izeneko taldea sortu zuten eta txistu emanaldi eta kontzertuak eskaini.

Karrera amaitu ondoren, 1934an, Oiartzuna itzuli zen Yon, eta bertan bizi izan zen 1936an gerra piztu zen arte. Tarte horretan Oiartzungo Batzokiko bultzatzaile eta dinamizatzaile izan zen eta antzerki talde bat ere eratu zuen herrian.

1936. urtean, gerrako lehenengo tiro hotsak entzun orduko, oiartzuar gudaria ihes egin beharrean aurkitu zen. Ihesaldi honek Parisera eraman zuen eta bertan ere txistulari lanetan aritu zen, Euskal Abesbatza eta Koreografia taldea sortuz (Eresoinka). 1941. urtean Ameriketako bidean jarri zen, han ere ihesi. Beti ere euskararen alde lanean, abesbatza bat sortuz, euskarazko aldizkari bat, txistulari taldeak... Caracasen. Musika ikasketak jarraitzeko New Yorkera joan zen, izan ere, musika ikastetxe batean sartzeari behar-beharrezkoa zuen bere nahia betetzeko. Disko bat grabatu zuen 1954an, euskal abestiz eta txistu musikaz hornituriko diskoa. 1956. urtetik 1963. urtera

Eusko Jaurlaritzako delegatu buru izan zen New Yorken bertan.

1963an Oiartzuna itzuli zen 27 urte pasa eta gero. Euskararen bilakaeraz eta etorkizunaz kezkatutik, gure hizkuntzaren irakaskuntzaz arduratu zen eta beharrezko irakasleak lan hori egiteko prestatu zituen. Euskara irakasteko lehen metodoak berari zor zaizkio. Irratiz euskara lantzeko metodologia sortu zuen. 1965ean argitaratu zuen "Euskera irratir bidez" izeneko obra. Bi liburu ziren, euskalkien berri eta euskararen aniztasuna eta aberastasuna argi eta garbi azaltzen zutenak. Azkenean herriak Euskaltzaindiarena hobetsi badu ere, aipagarria da Yonek bere garaian egin zuen lana. Haurrentzat beste metodologia berri bat sortu zuen, haurrak abesti, erritmo eta dantzaren bidez gure hizkuntzaren jabe egin zitezen.

Oiartzungo Lartaun Abesbatza eta Koreografia Taldea ere sortu eta zuzendu zuen urteetan zehar. Musikaren alorrean konposizio ugari idatzi eta landu zituen. Era guztietako lanak sortu eta harmonizatu zituen. Guztira 500 piezatik gora, hain zuzen ere. Dantza berri asko ere asmatu zituen.

1979an errepublikako istripu baten ondorioz, hil egin zen.


Aurten Yon Oñatibiaren jaiotzaren lehenengo mendeurrena ospatu da Oiartzunen, hainbat omenaldiren bidez. Hasteko, jaiotze data aurreko igandean Lartaun txistulari taldekoek Santa Zezilia eguna ospatzen zutela aprobetxatuz, herriko dantzari txikiek Yonen doinu bat dantzatu zuten.

Baina omenaldi nagusia azaroan 27an, igandean, ospatu zen, Oiartzungo Done Eztebe parrokian. Jen-

detza i
ko ord
izan zi
egin z
beste
ordea,
posatu
Omena
taun a
hartu z

Yon O
izan ze
musika

Eskert
ren ald





Amaia Sasiain eta Erlaitz Galardi
Batxilerra

hatzak **BETE LAN**



Batxilerra

Valderejoko ibilaldia



karagarria elkartu zen. Ekintza honi eguerdi-
u batean eman zitzaioan hasiera, eta bi zati
tuen. Lehenengo zatian "Meza Herrikoya"
en Yon Oñatibiaren eta abendu garaiko
abesti gregorianoekin. Bigarren zatian,
Bost gregorianoko abestiak eta Yonek kon-
tako beste zenbait abesti abestu zituzten.
aldi honetan Lartaun txistulari taldeak, Lar-
besbatzak eta Easo kapera gregorianoak
zuten parte.

ñatibiak herriaren alde egin zuena izugarria
en. Alor asko landu zituen: euskara, dantza,
...

zekoa, oro har, gure kultura eta gure herria-
e egindako ahalegin isila eta apala.

DBH 4. mailako Haizea Saez de Eguilaz,
Aroia Altuna eta Enara Mugarza



Oiartzoko 2. mailako ikasleak Val-
derejo, Añana eta Guardiola joan
ginen urrian.

Urriaren 13an bigarren batxilergoko
ikasleok Euskal Herriko lurralde
zoragarri batzuk bisitatu genituen.

Lehenik Añanako Gatzagak ikuste-
ra joan ginen. Bi taldetan banatuta
eta gidari baten laguntzaz gatza
nola eta non egiten zen erakutsi
ziguten. Bukatzean gatza erosteko
aukera izan genuen eta hantxe ber-
tan hamaiketakoa jan genuen.
Ondoren, autobusa hartuta Lalastra
herrira joan ginen eta bertan diapo-
rama bat-argazki eta audioak
uztartuz egiten den muntaia bat-
ikusi genuen, bertako animalia eta
erliebe garrantzitsuenei buruz hitz
egiten zuena. Bidean, oztopo txiki
bat izan genuen errepidean gindoa-
zela, artalde batek zeharkatu zuela-
ko bidea.

Bazkalordua iritsi arte, lasai eta
eguzkia hartzen egon ginen, ondo-
ko zelai handi batean. Bertan baz-
kaldu ostean Valderejoko parkea
zeharkatuz bi ordu inguruko ibilaldia
egin genuen. Mendi zoragarri-
inguratutako eremua da, nahiz eta
ez genuen aukerarik izan lehendik
ikusitako bideoan agertzen ziren
animaliak ikusteko. Hainbat argazki
atera genituen paisaia polit hartan.

Herran herrira iritsi ginen ibilaldia-
ren amaieran eta batzuk nahiko
nekatuak zeuden ordurako.
17:30ean autobusak bertan jaso
gintuen eta Bernedon dagoen ater-
petxerantz abiatu ginen. Gelak

aukeratu genituen gauzak ohe gai-
nean utzi, eta dutxa bero bat hartu
genuen. Afaldu ostean, zerbait har-
tzera joan ginen herrira eta goiz
oheratzen saiatu ginen, nahiz eta
batzuek ez utzi lo egiten.

Hurrengo goizean, gosaldutik, dena
jaso eta autobusez Guardiarantz
abiatu ginen. Bidean Bilar herrian
dagoen "Sorginaren txabola" izene-
ko trikuharria ikusi genuen eta hain-
bat argazki atera genituen bertan.
Ondoko mahastiak ikusteko aukera
ere izan genuen, eta mahatsa ere
jan zuten batzuek.

Guardia herrira iritsi ginenean, infor-
mazio bulegora joan ginen denak,
informazio eta liburuxken bila.
Ondoren, bi taldetan banaturik, Sta.
M^a de los Reyes eliza eta bodega
bat bisitatzera joan ginen.

Elizako gidak emandako azalpenak
nahiko motelak iruditu zitzaizkigun
arren, bisita atsegina izan zen.
Bitartean beste taldekoak El Fabu-
lista ardo-bodega ikustera joanak
ziren. Bodegako bisita amaitzean,
mahatsa zapaltzeko aukera izan
genuen. Gainera, kopa bat muztio
eskaini ziguten guri, eta irakasleei,
ardoa.

Bisitak amaitzean, plazan bazkaldu
genuen, eguzkitan, patxada ederre-
an. Etxeranzko bidea hartu genuen,
alienei buruzko pelikula bat ikusi,
eta 18:00ak aldera Oiartzuna aile-
gatu ginen, eta ondoren autobusak
Errenteriako bidea hartu zuen.

Amaia Sasiain eta Erlaitz Galardi



Hiru ikasle ohi, gipuzkoako bertsolari txapelketan

Ikasle ohi bat Bertsozale Elkarteko koordinatzaile, beste bat gai-jartzaile taldean, guraso bat epaile... Haurtzaro Ikastola oso presente dago aurtengo Gipuzkoako Bertsolari Txapelketan. Eta hori gutxi balitz, bertsolari moduan parte hartzen ere baditugu ikasle ohiak. Zehazki, hiru. Alaia Martin, Jon Martin eta Ander Lizarralde. Beraiekin egon gara, on-line.

1. Aspaldi bukatu zenuten ikastola. Zer egin duzue orduz geroztik? Zertan zabiltzate orain?

ALAIA: Batxilergoa Oiartzon egin nuen, gero Bilbora bizitzera joan eta Ikusentzunezko Komunikazioan lizentziatu nintzen, eta karrera amaiera Argentinan egin nuen. Geroztik hainbat gauzatan ibili naiz, zenbait hedabidetan kolaboratzen, Martin eta Sautrela saiotarako gidoiak idazten, eta iaiztik Bertsozale Elkartearen "Gu ere bertsotan" proiektuaren baitan irakasle lanetan nabil, ahozko-tasuna eta bertsolaritza lantzen. Horrez gain, bertsoez eta bertsotan gozatzen jarraitzen dut.

JON: Publizitatea eta Harreman Publikoak ikasi nituen nik Bilbon, baina kazetaritzan lanean jardun nuen lehen urtetan. Indian ibili nintzen lanean Gobernu Kanpoko Erakunde batean. Horren ostean diseinu grafikoan eta gidoigintzan sakondu nuen eta Mihiluzen lanean ibili nintzen hiru urtez. Azken urtean Ekogunean ibili naiz komunikazio arduradun gisa eta aurtengo ikasturtean bertsolaritza klaseak ematen ditut beste bi elementu hauekin batera. Hezkuntza munduarekin harremanetan hastea ondo datorkit, berriro ere unibertsitate munduan sartu eta Haur Hezkuntza ikasten hasi bainaiz.

ANDER: Ba, Don Boscon batxilerra egin nuen eta Donostian Ingeniaritza teknikoa ikasi nuen. Ohartu nintzen enpresa munduan ez nuela lan egin nahi eta irakaskuntza munduan sartu nintzen. Azken hiru urteak bertsolaritza irakasten pasa ditut.

2. Nola gogoratzen dituzue ikastolako urte haiek?

ALAIA: Lauso. Sentsazioak dauzkat oroitzapenak baino gehiago. Ni ez naiz sekula bereziki lineala izan eta urte haiek ere horrela gogoratzen ditut, gorabehera, sentimendu eta aldaketa askorekin. Oso irakasle onak izan nituen, tartean, eta mimo bereziz gogoratzen ditut orduan irakasle izandako batzuk: txikitari tutore izan nuen Eli, ingeleseko Martxel, euskarako Kontxi, frantseseko Mikel, ingeleseko Nerea, naturreko Ramon... Eta nola ez, ikastolari esker egindako lagunak, oraindik lagun-min ditudanak. Pena eman zidan etapa polit hura bukatzeak, baina gogoz nengoen zetorrenarako.

JON: Ikasle txintxoak nintzen ni. Lan gutxi ematen nien irakasleei... Egia esan, eragin handia dute haurtzaroko urteek gudan eta oroitzapen polita dut orokorrean. Badira bizi guztirako markatu nauten irakasleak.

ANDER: Ordutik euria franko egin du... Oso urruti ikusten dut hura. Gogoratzen dut nahiko ikasle formala nintzela.



3. Zer moduzko ikasleak zinenen? Kontatu daitekeen anekdota edo bihurrikeririk?

ALAIA: Bihurrikeriak ez kontatzearen aldekoa naiz, ez gara hainbeste zintzot! Saltsera eta hiztun etiketarekin atera nintzen, ustez, Haurtzarotik. Ikasle txukuna nintzen, beti gustatu zait ikaslea, baina uste dut ez nintzela klasean edukitzeko ikaslerik erosoa, ez naiz hainbeste orduz isilik egoteko gaitasuna dutenetarikoa, eta niretzat ikastola arloz arlokoaz gain lagunekin egoteko lekua zen, esperimentatzeko lekua, hanka sartzekoa... eta zenbaitetan ez zen bateragarria izango ziurrekin. Baina denok gara pertsonak, eta beraz desberdinak, eta denok ez dugu berdina enkajatzaren arauetan. Oro har, dena den, esker ona baino ez dut Haurtzarorentzat.

ANDER: Nahiko ikasle alferra nintzela oroitzen dut, ez nintzen askorik aplikatzen. Juxtuarekin aprobaten nuen eta nahikoa nuen orduan. Nahiz eta ez nuen gehiegi ikasten, horrek ez zuen esan nahi buruan bueltara ez nerabilenik ez gaiditzearen ideia. Gu oso gela mugitua ginen eta klase guztia pasatzen genuen elkarri adarra joz. Orain nik izango banitu ikasle, gu orduan ginenak, ez dakit zer egingo nukeen.

4. Zer esango zeniekete Haurtzaroko oraingo ikasleei?

ALAIA: Gozatzeko, aprobetxatzeko, ikasteko, eta, batez ere, izateko euren konfiantza, ez uzteko inori hegoak moztzen, eta egin dezatela euren bidea euren intuizioaren eta helburuen arabera.

JON: Ikasten ikas dezatela. Aprobetxatu ditzatela urte haiek, ez dakite-eta ze luxu den Haurtzaro ikastola bezalako ikastetxe batean egotea.

ANDER: Animoak emango nizkieke. Gustuko ez dituzten hamaika gauza ikasi beharko dituzte, seguru aski hurrengo egunean bertan ahaztuko dituztenak. Horregatik, nik esango niekeena da pentsa dezatela zer den gustuko dutena eta bila dezatela bizitzan bide hori.

5. Ze ekarpen egin du ikastolak zuen bertsozaletasunean?

ALAIA: Handia. Euskara gehiago maitatzen ikasi nuen ikastolan, eta euskararen bidetik bertsolaritza ezagutzen. Kontxi Begiristain eta Antton Kazabonek jarri zuten lehen harria eta bertso-eskolan Arkaitz Goikoetxea eta gero Exteban Martiarenarekin hasi nintzen



Alaia Martin, Ander Lizarralde eta Jon Martin.

bertsolaritzarekin liluratzen. Eta liluratuta jarraitzen dut.

JON: Egia esan, bertsolaritza ez zitzaidan batere gustatzen niri. Bertso saio bat entzutea aspergarria zen niretzat, baina egitea... egitea beste kontu bat zen. Izugarri gustatzen zitzaidan. Kontxik aholkatu zidan bertso-eskolara joateko eta bertan topatu nuen Karlos Aizpurua. Geroztik ezin izan dut bertsolaritzatik aldendu.

ANDER: Galanta! Guk zortea eduki dugu Bertso eskola ikastolan bertan edukitzea, bestela seguru ez ginatekeela bertsolari izango une hauetan. Nik asko eskertzen dut Hautzaro Ikastolak bertsolaritzaren alde egin duena eta egiten ari dena.

6. Nola ikusten duzu bertsolaritza eta irakaskuntzaren arteko lotura? Edo, beste modu batera galdetuta, Euskara irakasgaian bertsolaritza lantzeak zeini ematen dio gehiago: ikaslearen hezkuntza prozesuari edo bertsolaritza berari?

ALAIA: Biei ematen die. Jendaurreko lotsak galtzeko baliagarria da, eta baita euskararen ondareetarikoa bat ezagutzeko ere. Eta bide hori gozatuz egin liteke gainera. Bertsolaritzari ere ematen dio, jakina, beste belaunaldiak gozarazten gaituena helaraztean.

JON: Bertsolaritza irakaskuntzarako lanabes ona da. Zeharkako gaitasun asko lantzen dituelako: hizkuntza, musikaltasuna, jendaurrekotasuna... eta modu dibertigarrian gainera. Hezkuntzak badu, alde horretatik, erronka garrantzitsua. Ikasleen motibazioa mantentzeko ezinbestekoa da arreta eta interesa mantentzea eta uste dut horretan bete-betean asmatzen dugula guk.

ANDER: Hezkuntza prozesuari. Ez dakit hala den edo hala izatea nahiko nukeen. Bertsolaritza erreminta bat baino ez da umeen gain eragiteko. Nik bertsolaritza irakastea helburu dut, baina batez ere, hezitzaile izatea.

7. Zer da zuentzat bertsolaritza?

ALAIA: Ilusioa, magia, esateko aukera. Nire bizitzaren zutabeetarikoa bat.

JON: 12 urte nituela hasi nintzen bertsotan. Bizitza erdia baino gehiago daramat, beraz, bertsotan. Lagun onak eman dizkit, kultura kontsumitzeko ohitura ezberdin bat, erronkak... Naizenaren zati bat moldeatu duela uste dut. Batzuetan kuriositatea sortzen zait, nolakoa ote nintzateke bertsotan hasi ez banintz?

ANDER: Bizitzeko eta espresatzeko modu bat.

8. Plaza edo txapelketa?

ALAIA: Biak gustatzen zaizkit, bestela ez nuke parte hartuko. Txapelketa izeberg bat da, tarteka azaltzen dena, plazaren itsasoan.

Plazetan ikaragarri-ikaragarri gozatzen dut, eta horrek betetzen nau gehien, baina txapelketan ere gozatzen dut, gozamina desberdina izanagatik.

JON: Plaza nahiago. Justuagoa da. Txapelketa noizbehinka dator, saio bakarrera jokatzeko da, ariketa zehatzekin eta epaileekin. Dena den, nik zorte ona izan dut beti txapelketan eta gehienetan gozatu egiten dut. Bertso saio txikiak, bertso afariak... ondo irteten direnean, ez dago sententzio horren parekorik.

ANDER: Plaza dudarik gabe!

9.- Gustura ari al zarete oraindik jokoan den 2011ko Gipuzkoako Bertsolari Txapelketan?

ALAIA: Urduritasunak urduritasun, oso gustura. Nire helburua finalurrekoetara heltzea zen, eta hala, Euskal Herriko Txapelketan parte hartu ahal izateko aukera izatea, ez nuen erraz ikusten, baina azkenean bete dut helburua, eta benetan pozik nago, jada ez dut ezer galtzeko. Finala dago orain jokoan, eta helburutik ametsera jauzi egiten saiatzea baino ez zait gelditzen!

JON: Bai. Final laurdenetakoa da zatirik beldurgarriena, Txapelketa Nagusirako txartela jokoan dagoelako. Hortik aurrera gozatzeko aukera gehiago izaten da. Ondo prestatu dugu txapelketa. Ea gero emaitza ere halakoa den...

ANDER: Bai. Nahiz eta ez naizen final erdietara iritsi egindako txapelketarekin gustura nago. Helburua gozamenen jarri banu eta ez lortutako postuan, oraindik ere gusturago egongo nintzateke.

10. Elkarriketa hau egiten ari garen unean final erdiak eta finala jokatu gabe egon arren, eta aldizkaria txapelketa bukatu ondoren argitaratuko dela jakinik, ausartzen al zarete pronostikoa egiten?

ALAIA: Estu egongo da finala eta txapelkerako lehia. Garbi ikusten ditut finalean, Jexux Mari Irazu, Aitor Sarriegi, Jon Martin (ez anaia dudalako bakarrik!), eta Beñat Gaztelumendi, eta azken honen buru gainean ikusten dut txapela. Baina dena dago jokoan eta jokatzeko; beraz, pronostikoak pronostiko oholtzan erabakiko da dena.

JON: Beñat Gaztelumendik irabazi behar luke txapela. Berarekin prestatu dut txapelketa eta zoragarri dabil. Gainera, bertsoari denbora eskaintzeko moduan dago gogoz eta bizimoduz... eta normalean txapelketako azken emaitzak justizia egiten du.

ANDER: Nik ere, Beñaten alde egingo nuke txapelkerako. Txapel-dunordea esaten ez da erraza, baina nik, Jokin Uranga edo Jon Martinen alde egingo nuke.

Eskola kiroleko entrenatzaileei *elkarrizketa*

Egunean zehar, denak ez bada, gehienak ikasle izango zarete; baina arratsalde eta asteburuetan monitore lanak betetzen dituzue. Zer eskaintzen dizue aukera honek?

Haurrekin lan egiteko aukera, rol ezberdinak izatea (goizean ikasle, gero entrenatzaile), ikasitakoa praktikan jartzeko aukera, norberak bere burua ezagutzeko aukera...

Zuetako asko, bestalde, Haurtzaro ikastolako ikasle ohiak zarete. Bertako ikasle izatetik monitore izaterako aldaketa nola bizitu duzue?

Esperientzia ona eta polita da guretzat. Lehen guk irakasleak ikusten genituen eran, orain gu ikusten gaituzte haurrek eta, egia esan, arraroa egiten da hasieran. Bestalde, gurea izan den ikastolari gure partetik zerbait eskaintzea egoki ikusten dugu eta gustatu egiten zaigu.

Zuetako bakoitza talde batez arduratu arren, taldean antolatzeko duzue egin beharrekoa.

Aurten, entrenatzaile bakoitzak bi talde entrenatzen ditu. Hala ere, zenbaitetan, entrenamenduak egiteko taldeak elkartu egiten gara. Entrenamendu guztiak ez dira berdinak izaten. Nahiz eta entrenatzaile bakoitzak bere taldeak izan, asteazkenero elkartzen gara, bakoitzak bere taldearen berri emateko. Biler horietan, eskolaz kanpoko ikastolako koordinatzailea eta Oiarzungo eskola kiroleko teknikaria ere gurekin izaten dira eta alde batetik entrenamenduak prestatzen dira, baina taldeen martxaren eta jarduerak dakartzan gai guztien inguruan hitz egiten da.

Esan bezala, nahiz eta entrenatzaile bakoitzak bere taldeak izan, denok osatzen dugu eskola kirola eta denok dugu bata besteari zerbait erakutsi eta besteek zerbait ikasteko premia. Beraz, guztiok osatzen dugu talde bat.

Lan horretan hasteko ezinbestekoa da kirolari eta kirolzale izatea. Parte hartzen duten haur eta gaztetxoek zuen asmoak betetzen al dituzte?

Talde bakoitza ezberdina da eta orokorrean eskola kirolean helburu orokorrak betetzea lortzen saiatzen bagara ere, talde bakoitzeko kideak ezagutu ondoren, talde bakoitzak ditu bere helburu txiki eta zehatzak.

Helburu orokor horietako batzuk hauexek izango lirateke: kirol ohiturak sustatzea, taldekidetasuna bultzatzea, lankidetzatza...

Zenbaitentzat kirola lehia da. Beste zenbaitentzat laguntzeko denbora pasa. Zuentzat zerk du lehentasuna?

Lehentasuna zalanztarik gabe, haurrak eta bere garapenak du kasu honetan kirolaren bidez. Hala ere, lehiatzen ikastea garrantzitsua da.



Atzean, zutik, ezkeretik eskuinera: Gorka Lapazaran, Mikel Kordero, Lur Mitxelena eta Oier Moreno
Aurrean, Maitane Toledo eta Gexan Mendizabal

Haurrak ondo jokatzen ikas dezaten saiatzen gara eta beste puntu oso garrantzitsua, kirola eginez, ONDO PASATZEA!

Askotan gurasoen laguntza ere beharrezkoa gertatuko zaizue. Alde horretatik zer duzue esateko.

Gurasoen parte hartzea ere oso garrantzitsua da batez ere guk kirola praktikatzat haurraren garapenean eragin positiboa izan nahi dugulako, baina ezinbestekoa da biak norabide berean arraun egitea.

Garrantzitsua da gurasoak argi edukitzea entrenatzaileak esandakoak garrantzia eta pisua duela. Entrenatzaileak esandakoak zerbaitengatik esaten ditu eta gurasoek ere jarrera positiboa izatea ezinbestekoa da.

Txinparteko aukera hau aprobetxatuz zer adierazi edo eskatu nahiko zenukete.

Haurrekin lan egitea ez da batere lan erraza eta gaur egun eskola kirola hartzen ari den pisua gero eta garrantzitsuagoa da. Gero eta haur gehiagok hartzen dute parte jardueran honetan eta pozik gaude, kopuru horien artean azken urteetan nesken parte hartzea igo egin delako.

Entrenatzaileok gure ilusioa eta gogoia jartzen dugu, 8 urtetik 12 urte bitarteko neska-mutikoei kirol ezberdinak ezagutzeko eta ikasteko aukera honetan. Bidean zenbaitetan koskak aurkitzen dira, baina koska horiei aurre egiten saiatzen gara osatzen dugun taldean eta gure azken urteetako balorazioa ona da.

Besterik gabe, mila esker Txinpart aldizkariari.



Guraso ordezkariet elkarriketa

Oraingo honetan Guraso ordezkariengana hurbildu gara. Hau da hau kuadrilla! Ezin ba denei batera elkarriketa egin, baina tira, beti izaten da tartean hizketarako gogo gehixe-ago izaten duenen bat edo beste, eta horietxekin aritu gara.

Arratsalde on. Zer da, hemengo aldi?

Bai, deia jaso dugu eta, "pulamentu" pixka bat egingo ote dugun edo...

Eta, elkarriketarekin hasteko prest?

Zuek galdetu lasai, guk ikusiko dugu zer erantzutea komeni den.

"Joxe Debalde" goseak hil omen zen, zuek ere haren mar-txa...? Boluntario lan egite hori ez al zegoen ba modaz pasea?

"Debalde"? Ez-ez, guk gainera ordaindu egiten dugu! Kar-kar-kar. Egia esan, ez da musu-truk guk egiten duguna. Guraso ordezkari gisa egindakoa denon onerako da, eta jakina, baita gure onerako ere. Gure umeei Haurtzaron ikasteko zortea badute, aurrez ere norbaitek lan egin zuelako izango da noski... Azken finean, egiten dugun hori gure seme-alaben mesederako da, eta hori guraso batentzat gauza handia da. Gainera, gehienetan ematen duguna baino gehiago jasotzen dugu. Ikusten duzue, sakrifizio hutsagatik lan egite hori martirientzat uzten dugu.

Dagoeneko urte batzuk pasatu dira guraso ordezkarien figura gure ikastolan martxan jarri zenetik, baina esaiguzue, zer da zehazki gelako guraso ordezkaria?

Gelako guraso ordezkarien lana berez zubi-lana izango litzateke; gelako gurasoen eta ikastolako beste partaideen arteko zubiak eraikitzea. Batetik, gelako gurasoen kezak, proposamenak, ideiak... jaso eta bideratzea, eta bestetik, ikastolatik datozen asmoak, ekimenak, eskaerak... gurasoei helaraztea eta egin beharreko lanaketetan laguntzea. Tarteka, lanen batean gelako gurasoen laguntza koordinatzea tokatuko zaio, eta zenbaitetan antolaketaren inguruko erabakien hausnarketetan parte hartzea.

Txandakako antolaketa izanik, urteak joan ahala gelako guraso gehienak pasatzen gara ataka honetatik, eta horrek ikastolaren funtzionamendua hobeto ezagutzea eta ulertzea dakar.

Ikusten dugunez jende mordoxxa bat biltzen zarete. Nolakoa da zuen antolaketa? Oker ez bagaude, aurtan dinamika hori pixka bat aldatu duzue, ez?

Badira urte batzuk guraso ordezkarien figura martxan jarri zela, eta urtez urte hobekuntzak egin dira. Aurtengo aldaketa hori ere hor kokatu beharko genuke. Lehen hilero etapaka biltzen ginen, eta urtean bizpahirutan denok batera. Orain hilero guraso ordezkari guztiak biltzen gara, taldeka banatu eta bakoitzak gure etapako gaiak lantzen ditugu, eta gai orokorrak daudenean, lanketa



hori denen artean egiten dugu. Iruditzen zaigu modu hau dinami-koagoa dela eta gaiei irtenbidea azkarrago ematen zaiela (gainera bilerak ere gutxiago dira!). Bestelakoan, antolaketa orain arteko bera da. Ikasturte bukaeran hurrengo ikasturteko ordezkariak izendatzen dira geletan, ikasturteko lehenengo bileran etapa bakoitzekook gure etapako ordezkaria izendatzen dugu Hezkuntza batzorderako, eta azken honek koordinatzen du etapako taldea.

Zein dira ikasturte honetarako zuen helburuak?

Helburu nagusietako bat, eta ez aurtengoa bakar, gurasoen parte hartzea bultzatzea eta parte hartze horren antolaketa hobetzea da. Horretarako Estrategi Planeko 2. taldekoekin lanketa bat egiten ari gara. Honekin batera, gurasoen artean, eta gurasoen eta ikastolaren arteko komunikazioa hobetzea izango litzateke beste helburu garrantzitsu bat. Elkarren berri zenbat eta gehiago jakin, hobe.

Diozue, aurtengo helburuetako bat gurasoen parte hartzea berrantolatu eta bultzatzea da. Gurasoen parte hartzerik gabe ez al luke ba berdina funtzionatuko ikastolak?

Berdin funtzionatu?... nekez! Ikastola bizia da izatez, irekia, eta hala izan behar du gainera. Gaur egun ikastola aitzindari izatea, ikasle kopuru handia edukitzea, gizartearen esparru guztietara zabaldu izana..., horiek denak konpromiso, lan eta ardura askoren ondorio dira. Bai langileek eta bai gurasook gurea sentitzen dugu ikastola, eta horrela izan ez balitz, ez ginateke gauden tokian egongo. Etorkizunean ere halaxe beharko du gauzak ondo egiteko, eta gurasoon parte hartzea beharrezkoa izango da. Bestela... malo!



Tartean ere izango da parte hartu nahi ez duenik. Nola animatuko zenituzkete?

Gehienetan kontua ez da guraso jakin batek parte hartu nahi ez izatea, baizik eta modua edo aukera aurkitzea, eta hori ere ulertu behar da, denak ez gaude egoera berdinean. Beste askotan ezagutza falta izaten da; kanpotik beldur pixka bat ematen du, baina hor gabiltzan guztiak ezjakintasun berarekin hasi ginen, eta ez dugu inolako arazorik aurkitu. Gogorik ez duenari? Ba hemen inguruan dabilen batek esaten duena: "lagundu behar ez baduk, gutxienez trabarik ez egin!". Dena den, aitortu beharra dugu egiten dugun lana ez dela batere zaila, aldiz, aberasgarria dela esango genuke, eta behin hasita, gehienok errepikatzen dugu, beraz ez da hain gogorra izango!

Eta gurasoen ikuspegitik, zein dira aurrera begirako erronka nagusienak?

Gure aiekatik lehen aipatutako gurasoen antolaketan eta lankidetzan jarri beharko genituzke indarrak. Ikastolan ekimen berriak guk sortu, edo sortzen direnetan lagundu, eta horrela gure seme-alabek jasotzen duten heziketa hobetzen saiatu.

Beraz, ikusten dugunez animoso zabiltzate, musu-truk lanean jarraitzeko pronto...

Beno, musu-truk baino kasik nahiago musu-trukean, baina ikusi egin behar musuak nork eman eta nork jaso. Hori ere antolatu beharko genuke....

Bada, mila esker zuen erantzunengatik, eta jarraitu zintzo-zintzo lanean.



Jose Angel
Fernandez

Hautzaro ikastolako jantokiko sukaldaria



NIRE SEME-ALABAK HAZTEN HURBILETIK IKUSI AHAL IZATEKO HAUTATU NUEN LANTOKI HAU.

Joxe, aspalditik oiartzuarra, baina non jaioa eta noiz?

Leonen jaio nintzen 1962an, Astorgan. Eta 82an etorri nintzen Oiartzuna, 20 bat urte nituela.

Egun ikastolako jantokiko sukaldari. Baina zein da hemen hasi aurretik egindako ibilbidea?

Ikasketak Madrilgo Ostalaritza Eskolan egin nituen bost urtez, eta geroztik leku askotan izan naiz sukaldari lanetan. Denak ez ditugu esango, baina esanguratsuenak aipatuko ditugu. Gurutze Berrin Xabier Zapiaineekin igarotako urteak oso garrantzitsuak izan ziren niretzat. Madrilen Luis Irizarrekin eta Salvador Gallego jatetxean izan nituen esperientziak ere oso onak izan ziren. Horiez gain, Donostiako Gloria pastelerian Inazio Mendizabalekin egin nuen lan. Beste bat aitzatekotan, Etxalarko Bentan sukaldari zuzendari ere izan nintzen.

Eta zergatik Oiartzungo ikastolako jantokiko sukaldari?

Batez ere arrazoi bat azpimarratu nahi nuke nagusiki. Ohartua nintzen ohiko ostalaritzako ordutegiaren mende jarraituz gero, gero eta urrunago nengoela nire seme-alabengandik, eta horrek oso deseroso sentiarazten ninduen. Eguneko ordu gehienak, asteburuak barne, lanak jaten zizkidan, eta nire seme-alabak hazten ikusiko ez ote nituen beldur nintzen. Horregatik aurkeztu nuen nire burua ikastolako lanpostu horretarako egin zuten lehiaketa publikora.

Seme-alabengatik, beraz.

Bai. Nire haurrak hazten hurbiletik ikusteko. Egunero beren alboan lanean, asteburuak jai, eta oporraldi onak. Niretzat oso garrantzitsua da seme-alaben heziketa hurbiletik jarraitzea. Behin bakarrik ematen den esperientzia da eta errepika ezina, horregatik ez dut horretarako aukera galdu nahi.

Eta ari al dira hasierako espektatiba haiek betetzen?

Guztiz. Erabat gauzatzen ari dira nire helburuak, asmoak eta nahiak. 2005-2006 ikasturtean hasi nintzen hemen lanean, eta ez daukat hartutako erabakiaren damurik, ez penarik.



zait gustatzen... Harrigarria, benetan.

Zer jaten dute orduan etxean haur eta gaztetxo hauek? Edozein plater goxo arrotz egiten zaie.

**EZINBESTEKOA DA ELIKADURA EGOKIA
ETA OREKATUAREN OHITURA ETA KULTURA
ETXETIK HASTEA. BESTELA, HAURREK
EZ DAKITE BEHAR BEZALA ETA BEHAR DENA JATEN.**

Zenbat bazkari egunean?

430 bat egunero. Eta horietatik 12 bat dieta berezi: zeliakoak, alergiadunak... Eta lehen esan duguna, hainbeste bazkari izanik ere, egunero egunean eta momentuan maneaturako janaria.

Sei urteko esperientzia luze honetan, zein dira eguneroko lanean zure zeregin nagusiak?

Lehenengo gauza, hilabetea eta astea planifikatu. Horren arabera, produktuen hautaketa zehaztu. Jarraian, eskaerak planifikatu. Eta azkenik, eguneroko lanari ekin.

Ekin diezaiozun, bada!

Goizeko zazpitan hasten naiz normalean egunero, eta arratsaldeko seiak edo zazpiak aldera amaitzen dut. Hamabi bat orduko lanaldia egunean. Aurrez planifikatu eta prestaturiko programa betetzea izaten da eguneroko lana, hau da, eguneko bazkaria egun berean prestatzea, maneatzeko. Horretarako bost langile ditut taldean, bost sukaldari laguntzaile, esango genuke.

Beraz, horixe izan liteke zure sukaldeko ezaugarriak nagusi-ena.

Bai, hala esango nuke. Egunero, egunean kozinatutako janaria eskaintzea ikastolako ikasleei. Egun berean, momentuan prestatutako bazkaria ematea ikastolako haur eta gaztetxoei. Horixe da gure sukaldeko ezaugarri eta apustu nagusia, zalantzarik gabe.

**IKASTOLAKO IKASLEEI EGUNERO, EGUN BEREAN,
MENTUAN MANEATUTAKO BAZKARIA
ESKANTZEA DA GURE APUSTU NAGUSIA.**

Zein da menuak planifikatzeko modua? Zein dira horretarako erabiltzen dituzuen irizpideak?

Hilabete osoa planifikatzen dugu, ikasleek nahiz gurasoek, aurrez jakin dezaten zer jango duten hilabetearen zehar. Eta beti ere, eguneroko menuan, oinarritzko elikadura orekatuak derrigorrez behar dituen hiru osagaiak bermatuz. Proteinak, karbono hidratoak eta bitaminak.

Hiru osagai nagusi horiek konbinatuz, ez da zaila izango maiztasunez plater ezberdinak sortzea.

Ez, baina ez da erraza gaztetxo horiekin asmatzea. Gaur egungo haur gehienek ez dakarte etxetik elikadura orekatuaren ohiturarik, kulturarik. Eta garrantzizkoa dela uste dut elikadura egokia eta orekatuaren kultura hori etxetik hastea. Bestela, hau da gertatzen dena, haurrek ez dakitela jaten. Berdura, txarra; arrainari azala kendu; pure ez dut nahi; entsalada ez dakit jaten; krema hau ez

Ikastola Egunean ere zeuk prestatzen duzu bazkaria.

Horrela da. Aurtan 560 menu berezi prestatu ditugu. Eta egia esan, esker onez eta gustura egiten dudan lana da egun horretako, nahiz eta sekulako lana sortzen didan aurreko astetik hasita. Gainera, aukera horiez baliatzen naiz, ohikoak ez diren plater bereziak prestatzeko, profesionalki garatzen jarraitu eta sormenari bidea egiteko.

Gurasoen arteko asebetetze maila neurtzeko ikastolak egin duen azken inkestan, oso emaitza onak jaso zituen jantokiak.

Egia da, bai, eta oso harro nago emaitza horiek direla eta. Ikastolak eskaintzen dituen zerbitzuen artean notarik onena jaso zuen gure sukaldeak, 8,26.

Zergatik ote da?

Nik uste lau oinarri sendo dituela gure ikastolako sukaldeak. Lehenengoa, produktuen hautaketa egokia, kalitatezko produktuen aukeraketa. Bigarren baldintza, egunero otordua jateko momentuan prestatua, maneatua. Hirugarrena, ongi kozinatzea, profesionaltasunez, maitasunez eta ilusioz. Eta azkenik, garbitasuna eguneroko ohitura bilakatzea. Azkeneko honen haritik, jakin, urtean lau aldiz eta nota onarekin, pasatzen ditugula APPCC sistemaren kontrolak.

Etorkizunean?

Gure seme-alabak hazten eta hezten bertatik bertara ikusten jarraitzea, eta 8,26ko nota hori 9ra igotzea.

Bejondeizula, Joxe! Zu etxerako!

Antton Kazabon Amigorena



Nori dagokio oinetako bakoitza?



HH1 haur Hezkuntza 1

Begira zer nolako haur ederrak hasi diren ikastolan!



HH 1A

TUTOREA: ARANTZA.

GOIKO ILADAN:

IPAR MARTIN, OIHANA PORTU, OIER DACOSTA, EKAIN GARMENDIA, AIMAR VENTURA, MARKEL UZCUDUN, MAGALI ODRIOTZOLA, AIORA BERASATEGUI, OIHAN FERNANDEZ, IZARO APEZETXEA, NAHIKARI ILLARREGUI, NAGORE ELICEGUI, IZARO DIEZ.

BEHEKO ILADAN:

IRAIA OYARZABAL, UGAITZ GUETARIA, ASIER IPARRAGUIRRE, EKHI ARIZMENDI, JARE BERRA, AIUR SARRIEGI, CLOÉ IGEA, ANDER ARBELAIZ, ISONA OIARBIDE, MALEN BERGARETXE, AIERT ORTEGA.



HH 1B

TUTOREA: MAXUX.

GOIKO ILADAN:

MARTIN GARCIA, JOANE IRIGOIEN, URTZI SANZBERRO, UNAI ZELAIARAN, MANEX OLAIZ, LIERNI JAUREGI, UXUE AROZENA, NAIA ITURRIZA, LEIRE SUAREZ, MANEX OLAIZ, EÑAUT LEIZA.

BEHEKO ILADAN:

BEÑAT PUENTE, AITZOL OLAIZOLA, NIKO SALINAS, JUNE GIL, LOREA KORTAJARENA, GEXAN BELOKI, ELAIA RICO, GARAZI BORDES, ELENE URRESTARAZU, JOANA PERURENA, MADDI ZUBIA, OIHAN SANCHEZ.

ETA FALTA DIRENAK:

ADEI ARRUABARRENA, JUNE IRIGOIEN.



HH 1C

TUTOREA: ANA.

GOIKO ILADAN:

HODEI GOÑI, AURITZ URKIZU, NORA SUSPERREGI, KOLDO IÑARRA, ILARGI ZIAURRITZ, IORITZ LIZASO, GARAZI SAAVEDRA, AROA GURIDI, ANE MUGICA, MARKEL APEZETXEA, IGOTZ TELLETXEA, LUKAS ARRIZABALAGA.

BEHEKO ILADAN:

NOEMI AGUIRRE, HAITZ LASA, ANARTZ OTAEGUI, CLOE GARCIA, ARAITZ EGIGUREN, LIBE INCIARTE, OINATZ KORTA, IAN DAVIS, ARITZ OYARZABAL, ANDER LERCHUNDI, ARITZ RETEGUI, UXUE LANZ.



Mendiburu kalea, 2 · ☎ 943 49 47 19



GARRITASUN INDUSTRIALERAKO
SISTEMA ETA PRODUKTUAK

GOIEKO S.L.
Bidaurre Ureder Industrialdea
2. Pabilioia - P4 partzeia
Ventas de Irun Auzoa - 20305 IRUN
Tfnoa.: 943 634 536 • Fax: 943 634 537
goieko@goiocom.net



Industrias Tajo, S. Coop.



MONDRAGON
COMPONENTES

NIESSEN

ABB Niessen, S.A.

Polígono de Aranguren s/n · 20180 OIARTZUN
☎ 943 260 101 · Fax: 943 260 250

construcciones ARABOLAZA S.L.

Berriztatze lanak

Casa Antsillas Berri (Gurutze) · 20180 OIARTZUN
☎ 943 491 365 · Postakutxa 16 · Fax 943 493 772



AENOR
ER
Empresa
Registrada
ER-424/2/96



OIARTZUN

Zure Alcampo, egunero hobetuz



Easo Motor

FordFocus



Salmenta + Tailerra + Txapatan + eskaintza hoberenak

Lintzirin Poligonoa, 10 · 20180 OIARTZUN
☎ 943 26 04 26 / 943 26 03 91



Ederki, s.l.

Ihurrita Bidea, 13 / 6. lokala · 20180 OIARTZUN · ☎ 943 491 641



OIARTZUN LANTEGIAK, S.L.

Salmeta · Mekanika · Karrozeria

Ihurrita Bidea, 13 / 1-6 lokalak · 20180 OIARTZUN · ☎ / faxa: 943 491 848 · 943 494 136



LÍDER EN EL
TRANSPORTE INTERNACIONAL

LIDERRA
NAZIOARTEKO GARRAIOAN

Araña buru, 1 · Pol. Lanbarren · 20180 OIARTZUN
☎ 943 491 375 · Fax 943 493 462



KIRLODEGOTAKO KIDAKETIK
GOSTON INTEGRAL, PULBORTAKO



ELORSING KIRLODEGIA • Euzkadi, 24
T: 943 492 552 • M: 629 751 892
F: 943 490 591 • gezak@telefonosnet
20180 OIARTZUN (Gorria)

txinpart⁵¹

www.haurtzaroikastola.net

